

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

27

Eskolaren funtzio
aldatzailea
gaia

Txus Congil
elkarrizketa

Generoak eta
sekuentziak
Gehigarria

Arantzazuko
Artzain-Eskola
Esperientziak

1998ko APIRILA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANtZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.998/IV/6

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ESKOLAREN FUNTZIO ALDATZAILEA

Trintxerpeko Karmengo Ama herri ikastetxearen proiektua

14 elkarrizketa

Txus Congil

Izadia kabinetearen ihardueraz

19 Gehigarria

Generoak eta sekuentziazioa
hizkuntza arloko curriculumean

Mondragon Unibertsitatea

26 Esperientziak

Arantzazuko Artzain-Eskola

29 Berriak

35 Nazioartea

Suediako Haur Zerbitzuak eta Eskolak ezagutzen

Izaskun Madariaga

39 Praktikatzen

Zer da eskultura? (II)

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen
laguntzaileek plazaratutako iritziak
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

Lan banaketa egokiagoak ezinbestekoak zaizkion errekurtsioak ahalbidetuko lizkioke Hezkuntzari ere.

APIRILA

e d i t o

r i a l a

G

izartea mugitzen ari da. Langabezi eta prekaritate maila nabarmenki gutxitu dezaketen proposamen zehatzak aurkez-

tuta daude.

Euskal Herrian lan egin nahi duten bost pertsonetatik bat, hiru emakumetatik bat eta bi gaztetatik bat langabezian daude.

Datuak hor daude. Izen-abizenak dituzten zenbaki hauen gordinkeriak zer pentsatu eman behar digu. Proposatutako neurriak gauzatzen badira, 100.000 lanpostu berri sortuko dira eta aldi baterako diren 150.000 kontratu finkotan bilaka daitezke.

Errealitate honen aurrean, bakoitzak beretik eskaini eta eman behar du gizarte askeago eta zuzenago bat gauzatuko badugu.

Eta Hezkuntza arloak badu zer esan eta zer eskaini: adinean gora doan kolektiboa gara eta lanaren zamak eragin latzak ditu gure osasunean. Gelako haur kopurua gutxituz, irakasle/gela ratioa handituz, irakasleen lan baldintzak berdinuz, irakasle euskaldunen beharra langabezian

dauden irakasle euskaldunekin betez... lan banaketa bidezkoago bat ahalbideratzeaz gain, irakaskuntzaren kalitatea hobetuko genuke.

Begira iezaiozun orain gure gelari. Aukera ditzagun hamar ikasle EAEn esaterako: lauk ez dute lanik izango. Bost behin-behinekotasunean arituko dira eta batek bakarrik lortuko du lanpostu finkoa.

Curriculum, ikasgai eta gure jardunean elkartasun, eskubide, gizalagun... ari gara barra-barra. Baina gizartean ez dute honen isladarik topatuko. Eta langabezia, edo hobe esan, lan banaketa eza pairatu beharko dute.

Aukera aparta dugu gizartean sortzen ari den mugimenduari bat egin eta guk ere beste sektoreekin batera lan banaketa zuzenago baten aldeko ahalegina egiteko. Hezkuntza sektoreak eta gure osasunak eskertuko lukete. Eta ikasleriak gure esanetik baino gure erudetik ezagutu ahal izango du irakatsi nahi dizkiogun baloreen esanahia. *Gure jarrerarekin hitzak edukiz bete ahal izango ditugu. Ba ote da irakaspen ederragorik?*

Bakoitzak eskaini denok izan dezagun horra benetako aberastasuna!



Irakaskuntza Ertainaren gora-beherak Nafarroan eta Iparraldean

k r o n



Batxilergoan bekak ala kontzertuak?

Nafarroan aurrematrikulazio garai burutu berri da eta Batxilergoaren kasuan oraindik egoera ezegonkorra da. Izan ere, IU eta PSN alderdiek mozio bat aurkeztu zuten martxoan. Gaia Batxilergo berriaren finantziaketa zen.

Orain arte zentro publiko zein pribatuek eskaintzen zituzten BBB eta UBI eta bien finantzaketa Nafarroako Gobernuaren eskuetan zegoen, pribatuen kasuan kontzertuen bidez. IU eta PSNk proposatu dutena, berriz, zera da: zentro pribatuei kontzertua kentzea eta beka bidezko dirulaguntza indibidualak ematea. Hauen ustez, zenbait ikastetxek kuota izugarriak kobratzen dizkiete gurasoei eta hori ez da legezkoa. Gainera ez-legezko kompetentzia egiten

dute eta irakaskuntza askatasunaren aurka doa.

IU eta PSNren ustez, ordea, kontzertuak mantentzen badira, orain arteko irakaskuntzaren kontzentrazioa eta zentralizazioa mantendu egingo dira eta hori ez da batere onuragarria.

UPNek, ordea, gaur egungo dirulaguntzak emanez jarraitzea defendatzen du. Gaur egun 3.BBBrako ematen den dirulaguntza Erreformako Batxilergoko lehen ikasturtera bideratzea proposatzen du. Bigarren ikasturtekoa aztertu egingo litzateke. Bi ikasturteak finantzatzea 1.000 milio pezeta kostako litzaiokie Nafarroako Gobernuari.

Kontzertua mantentzen bada, gurasoek 5.000 edo 10.000 pezetako kuota ordaindu beharko dute, eta besteala, 30.000 pezeta ingurukoa.

Sindikatuaren gehiengoa ez dator bat UPNren proposamenarekin. Kontzertuak mantentzeak irakaskuntza publiko zein pribatuan desoreka handiak sortuko litzatekeela uste dute eta sare publikoko irakasleen artean ere eragin handia izango lukeela.

Beraz, erabakia kontzertu eta beken artean dago Nafarroako DOBH. Azken erabakia Parlamentuak hartuko du, baina aurrematrikulazio garaian ez ikastetxeek ez gurasoek ez dute ezer seguru izan.

Lanbide Heziketako Plan berria

Lanbide Heziketako Euskal Plana abian da eta bere lehen etapa irailean hasiko da. Plan hau Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak darama aurrera. Kontseilu interinstituzionala da eta EAEko Lanbide Heziketako zentroak koordinatzen ditu. Bere jardura Lanbide Heziketako proiektuak eta planak egitean datza batez ere. Momentuz 18 programa desberdin diseinatu dira. Irailean martxan jarriko diren artean behatoki baten muntaia eta prestakuntza-enpresa arteko marko berri baten osaketa daude. Horrez gain, lantokietan ikasteko eta praktikak egiteko aukera gehitzea, Lanbide Heziketako diseinu curriculurak ezagutaraztea eta heziketa ez arautuaren diagnostikoa egitea eta antolatzea aurreikusten dira. Gaur egun 37.000 dira EAEn Lanbide Heziketa ez arautuan ikasten duten ikasleak.

Instituzio eta elkarte desberdinen inplikazioa eta parte hartzea lortzea da Lanbide Heziketari lotutako iniziatiba honen helburua.

“Haurrari edertasuna aurkitzen eta miresgarritasuna bilatzen erakutsi behar zaio”. (LOLO RICO)

i k a

Ikasleen ahotsa

Claude Allegre Frantziako Hezkuntza Nazionaleko ministroak Frantziako irakaskuntza sistema orokorraz gogoetatzea ezinbestekotzat jo zuen bere kargua hartu bezain laister. Bere ustez, gogoeta kide guztien artean bultzatu behar da eta asmo horrekin bidali zien lizeotako ikasle, irakasle eta beste kideei inkesta. “Nolako jakintzak ikasten dira lizeoetan” dute izenburu bezala inkestok. Abenduan bidali ziren lizeoetara eta ikasleen %80ak bete ditu. Irakasleen artean erantzuna %50koa izan da. Guztiei zer, nola eta zergatik ikasten den lizeoan galdetu die.

Hau lehen urratsa izan da. Bigarrena Lyonen burututako eztabaida izan zen. Eta hurrengoa apirilaren bukaeran egingo diren topaketa orokorrak izanen dira.

Bertan departamentu bakoitzeko ikasle ordezkari batek parte hartuko du. Pirinio Atlantikoko departamentuko ordezkaria Hazparneko lizeoko Aitor Manterola izanen da. Ministroak hasitako gogoeta interesgarritzat jo du eta baita eztabaida jarraitzeko aukera ere. Izan ere, Manterolaren ustez eztabaidatzeko gauza anitz daude. Adibidez, inkesten arabera, ikasleek funtsezkotzat jo dute Matematikak ikastea, baina baita hurbileko Historia ere.

Oraingoz bederen, ikasleen iritzia aintzat hartuko dira topaketa horietan, eta hori garrantzitsua da erreforma orokorrari eta biharako prestakuntza egokia aurkitzeari begira.



Testuliburuaren kontrola areagotuko da

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila testuliburuak argitaratzeko pasa behar den kontrola areagotzeko asmotan da. Horretarako dekretu bat prestatzen ari da. Orain burutzen den kontrola oso zorrotza ez dela deritzo eta metodologia zehatzagoa erabili behar dela. Batez ere, balore etiko eta demokratikoen aurkako kontzeptuak dituzten argitalpenak egon ez daitezten.

Dekretu berriaren arabera, argitalletxeek testu edo materiala oso-osorik aurkeztu beharko dute, argazki, marrazki eta gainerako euskarri grafiko guztiekin. Ondoren, hiru kontrol mota pasa beharko dituzte:

1- IDC edo Instituto de Diseño Curricular delakoa edukiaz arduratuko da. Argitalpenaren edukiak hezkuntza curriculumari lotuta dauden edo ez aztertuko du.

2- Antolamendu pedagogikorako zuzendaritzak erabakiko du materialaren balio didaktikoa.

3- Euskara zerbitzua euskararen erabilpen egokiaz arduratuko da.

Hiru kontrol hauek gainditu ostean, argitaratzeko azken baimena batzorde baten esku egongo da. Batzorde hau aipatu hiru kontroleta-ko arduradunek eta Hezkuntza Saileko sailburuordeak osatuko dute.

Argitalpenak sailkatu ere egingo ditu dekretuak. Horrela, eskolako materiala, eskolaz kanpoko materiala eta material lagungarria bereiztuko dira.

Dena dela, ikasmaterialak soilik ez dira izango dekretuak kontrolatuko dituenak. Beste hainbat arlotako argitalpenek ere kontrolak gainditu beharko dituzte. Esate baterako, helduen euskalduntzerako erabiltzen den materialak.

Beraz, euskaraz lan egiteko erabili beharko dugun materialak gero eta kontrol gehiago pasa beharko ditu hemendik aurrera.

GAIA

Eskolaren funt

Trintxerpeko Karmengo Ama herri ikastetxean iazko otsailean proiektu anbiziotsu bat jarri zuten martxan. Eskola, irakasleak, ikasleak, gurasoak eta gizarteko talde desberdinak

biltzen dituen proiektua da. Denen arteko lana eta koordinazioa zutabe hartuta ikasleak etorkizunerako prestatzeko planteamendu berria da. Lan mardula baina gogoz ekin diotena.



zio aldatzailea

Trintxerpeko Karmengo Ama ikastetxearen proiektua

Trintxerpeko Karmengo Ama herri ikastetxean Haur eta Lehen Hezkuntza irakasten dira, hots, 2 eta 11 urteko haurrak joaten dira. Hiztunen gehien-goia erdalduna den ingurunean kokaturik dago. Gehiengo handi bat gaztelaniaz mintzatzen da, beste ehuneko kopuru bat portugesez, beste bat galizieraz, bakarren bat arabez eta bakan batzuk euskaraz. Zentroak B eta D ereduak eskaintzen ditu eta D ereduko matrikulazioak gehiago dira B eredu-koak baino.

Testuinguru honetan hasi dute proiektua. Baina nolakoa da proiektu hori? Bada, auzoko elkargune guztiak elkartu eta denak haurren heziketan lanean jartzen dituen proiektua dela esan genezake. Guztiak ikuspegi eta norabide berean eta zuzenean parte hartuz aritzea da muina eta oinarria, bai irakasleak, bai gurasoak eta baita eragile sozialak ere. Irakaskuntza ereduaren berrikuntza pedagogikoa dakar honek eta azken helburua haurrak 2010. urterako prestatzea da.

Proiektuaren jatorria

Proiektuaren proposamena Eusko Jaurlaritzatik Oreretako PATera iritsi zen. Kalifornian egindako esperientzia batean oinarritzen da eta horren berri Bartzelonako Unibertsitateko CREA taldeak ekarri zuen. CREA ikerketa zerbitzu bat da eta Kalifornian egon ziren hango proiektu eta esperientziak aztertuz. EEBBetan hamar urte daromatza proiektu honek. Zentro aurreratuetako edo eliteetako filosofian oinarritzen da, eredu hori gainontzeko eskoletara ere zabaltzeko.

Euskal Herrira egokitu zituzten ondoren, eta horren aritik ekin diote Karmengo Aman. Baina ez hemen soilik. Portugaleteko Ruperto Medinan,

Txurdinagako Artatxen eta Arabako Ramon Bajo ikastetxeetan ere garatzen ari dira.

Eusko Jaurlaritzarekin egindako lan akordio baten arabera, CREAk kanpoko aholkulari gisa laguntzeko die aipatu lau ikastetxeei. Horrez gain, PATeko arduradunekin zuzenean harremanetan daude. Trintxerpeko kasuan, Julian Lavadorekin. Julianek azaltzen digunaren arabera “CREAkoak hiruhilabete bakoitzean zentrora etortzen dira gure pausoak baloratzeko eta segurtasuna emateko. Eta gu astero biltzen gara eskolako batzorde eta talde zuzentzailearekin”.

Izan ere, proiektua aurrera eramanez ahal izateko batzorde desberdinak eratu dira. Alde batetik talde zuzentzaile edo gidatzailea dago. Talde honek dena koordinatzen du. Bestetik, lehentasunen arabera sortutako batzordeak daude, eta guztira lau dira:

- 1- Hizkuntzen batzordea.
- 2- Teknologia berrien batzordea.
- 3- Aholkularitza batzordea.
- 4- Antolaketa batzordea.

Proiektuaren helburuak

Planteamendu berri honen jatorria galdera batzuetatik sortu da: zertarako balio dezake eskolak eta zertarako balio dezan nahi dugu? Hausnarketa hauek alde teoriko zein praktikoetan eragin dezaten ekin diote bideari Karmengo Ama ikastetxean.

Julian Lavadok argi eta garbi azaldu digu proiektuaren helburuak zeintzu diren. “Eskolaren asmoa ikasleen ikasketak itxaropen eta aukerak gehitzea da, kontuan izanik azken helburua ikasleak aldatzen ari den gizarte honetan sozialki eta laboralki integratzea dela. Horretarako argi dago eskolak ere aldatu egin behar duela”.

Guztiak ikuspegi eta norabide berean eta zuzenean parte hartuz aritzea da muina eta oinarria, bai irakasleak, bai gurasoak eta baita eragile sozialak ere.

Konformistak izan gara eta gure haurrentzat ez ditugu goi mailako helburuak inoiz planteatu. Proiektuak pentsamendu honen aurka borrokatzen du.



Aldaketa horri loturik dago filosofia edo pentsaera aldaketa ere. Izan ere, proiektua Kaliforniako ikastetxe aurretuenetan oinarritua dago, baina hori ez da eliteko ikastetxeetara mugatzen. Julianek dioen bezala normalean auzo baztertuetan "egiten duguna eginda nahikoa egiten dugu" pentsatzeko joera egon da. "Konfomistak izan gara eta gure haurrentzat ez ditugu goi mailako helburuak inoiz planteatu. Proiektuak pentsamendu honen aurka borrokatzen du. Ez dugu daukagunarekin konformatu behar, elite eta goi mailako ikastetxeek lortu nahi izaten dutena bilatu behar dugu guk ere". Ez da minimotan oinarritutako curriculum defenda-tzen dutena, baizik eta curriculumeko edukiak alde batera utzi gabe, ikasketa komunitatean lehen mailakoak kontsideratzen diren aspektuak bultzatzea.

Hori lortzeko ikerketa soziologikoak egin behar dira lehendabizi etorkizuneari gizarre eta lan mailan integratua izan den pertsona nolakoa izango den esango digutenak.

Horren ardura ez du eskolak soilik, ordea. "Soziologikoki frogatua dago ikasleen ikasketen %50a eskolatik kanpo jasotakoa dela. Beraz, garrantzitsua da heziketa eragile guztiak koordinatuta egotea dagoen itxaropen faltaren aurka borrokatzeko. Zeren irakasleen artean itxaropen falta baitago ikasleak gizarre talde jakin batekoak direlako. Ikasleen artean ere itxaropen falta dago zein gizarre bizi diren ikusten dutelako. Eta gurasoengan ere itxaropen falta dago eskolara joatearekin nahikoa egiten dutela pentsatzen dutelako. Horregatik, horren aurka borrokatzea da proiektuaren gakoa". Eta hori prak-

tikan jartzeko funtsezkoa da eragile hezitzaile guztien parte hartzea. Beraz, ikasketa zentroa "ikasketa komunitate" bihurtzea dakar honek.

Partehartzaile guztien arteko elkar ulertze eta elkar lanaren emaitza da proiektua. Errealitate soziala aldatzeko parte hartu dezakete guztiak, eta heziketa aldaketa soziala ekar dezakeen ekintza da. Eskolako eta gizarreko porrotan aurrean ez etsitzea eskatzen du. Horretarako ikasleei beraien gaitasunak lantzeko aukera eman behar zaie, etorkizuneko gizarrean eta lan munduan aukera berdina izan ditzaten eta integratzeko gai izan daitezten.

Aldaketa ematen hasi aurretik oinarrituko abiapuntuak ongi definitu behar dira eta horretan ados daude partehartzaile guztiak. Honako hauek dira puntuak:

1- Gurasoen partaidetza: erabaki garrantzitsu guztietan parte hartu behar dute.

2- Teknologia berriak barneratu behar dira irakaskuntzan: soziologiko-ki industriaren garaitik informazioaren garaira igaro garea frogatu da. Orain informazioarekin lan egitea da garrantzitsua. Informazio horren berri duenak eta erabiltzeko gaitasuna duenak gizarre eta lan arloan errazago integratzeko aukera izango du.

3- Hizkuntzen domeinua.

4- Irakasle eta gurasoen prestakuntza euren eginkizuna hobeto betetzeko.

Lehentasunen aritik

Aipatu lau lehentasun hauek jorratzen hasiak dira, eta gezurra badirudi ere, arlo bakoitzak esparru zabala du. Gurasoen partaidetza eta hauen zein

irakasleen prestakuntzari buruz aurre-ago hitz egingo badugu ere, orain beste bi gaietan geldiene bat egingo dugu.

Proiektuaren etapak

Horrelako proiektu batean sartu aurretik garrantzitsua da sentsibilizazioa, zertan sartzea goazen jakitea. Ondoren etapa eta pauso desberdinak etorriko dira.

Lehenengo etapa sentsibilizazio etapa izan zen. Mari Kruz zuzendariaren iritziz etapa gogorrena izan zen proiektuaren filosofiaz kontzientziatu beharra izan zutelako. "Irakasleok urte asko daramatzagu irakaskuntzan, baina hala ere kosta egin zitzaigun filosofia berria barneratzea. Ez du metodologia aldaketa soilik suposatzen, antolaketa osoaren aldaketa ere bai. Irakasle guztiok gure jokaera aldatu behar dugu eta aldaketa garaia iristen denean denon kostatzen zaigu lehengoa uztea".

Etapa honetan bost egunetako jardunaldiak izan zituzten irakasleek. Ikasleak aisialdiko begiraleekin eta praktikatuko ikasleekin zeuden bitartean, irakasleek prestakuntza saioak jaso zituzten CREAren eskutik.

Etapa honen barruan bi pauso desberdin eman zituztela dio Mari Kruz.

1- Proiektua ezagutu.

2- Ametsezko etapa: lan taldeetan banatu eta bakoitzak eskola perfektua eta ezin hobea nola irudikatzen zuten azaldu behar zuten, nolako eskola nahi zuten ikasleentzat eta beretzat.

Ariketa hau gurasoek, gizarre eragileek eta aisialdiko begiraleek ere egin zuten, eta baita hurrek ere. "Bai, hurrek ere informatu egin nahi genituen. Eskola berri bat nahi genuela azaldu genien, geneukanarekin gustura geundela baina beraientzat hoberena nahi genuela. Horretarako beraiek ere parte hartu behar zutela esan genien eta beraien ideiak ere garrantzitsuak zirela. Marrazki, ipuin eta txotxongilo bidez adierazi zituzten ikastetxean dauden gauzak, nahi lituzketenak, berdin mantenduko lituzketen gauzak, aldatu egingo lituzketenak eta abar. Benetan gauza interesgarriak eta politak atera ziren.

Teknologia berriak



Victor BERMEJO
PATeko aholkularia

Ikasleak 2010. urterako prestatu behar baldin badira, eta nahiz eta gizarte hori zehazki nolakoa izango den ez jakin, teknologia berriek garrantzia izango dutela ez du inork zalantzan jartzen. Baina aurretik, irakasleriaren prestakuntza dago. Victor Bermejo PATeko teknologia berrietako aholkularia da eta berak dioenez momentu honetan garrantzitsuena irakasleriaren prestakuntza da.

Nola prestatu behar da irakasleria?

Lehenengo eta behin bitartekoak erabiltzeagatik erabiltzeko filosofia hori baztertu behar da. Askotan ordenagailua modan dagoela eta ordenagailua erabiltzen hasten gara. Hurrengoan bideoa jartzen da modan eta denak bideoa erabiltzen. Metodo horrek hilabetea irauten du

eta ondoren akabo, etsipena eta porrota datoz. Arbela erabiliz kontzeptu bat azaltzeko gai baldin bagara, ez dugu teknologia berriak erabiltzeko beharrik. Beraz, ideia hori argi eduki behar da hasieratik.

Ondoren, teknologia berriak lagungarriak eta osagarriak direla jakin behar du irakasleriak, eta ez ezinbesteko tresnak. Beraz, ongi erabiltzen ikasi behar da, bi zentzutan. Alde batetik gauzak esplikatzeko eta azaltzeko, komunikatzeko. Eta bestetik, ikasleari ere erabiltzen utziz.

Hala ere, irakasleriaren artean beldurra dago teknologia berrien aurrean. Nola gainditu hori?

Beldurra segurtasun ezak ematen du. Eta askotan ikasleek gehiago dakite. Informazioaren belaunaldian jaiok dira eta kontzeptu asko barneratuta dauzkate inork azalpenik eman gabe. Baina horrek ez gaitu kezkatu behar, baizik eta teknologia berri horien erabilpena.

Erabilpen horretan neurria hartzea eta gehiegikerian ez erortzea da gauza. Nola neur dezakegu hori?

Teknologia berriekin egiten dugun guztia curriculumaren barruan egon behar du.

Zein adinekin erabili behar dira?

Haur Hezkuntzatik hasi gaitzke erabiltzen. Adibidez, ordenagailuekin alde ikonikoa, teklatuaren eza-gupena eta abar landu daitezke. Pixkanaka-pixkanaka gauza berriak eta konplexuagoak erabiliz joango gara. Ongi legoke Lehen Hezkuntza makinaz idazten jakinda bukatzea.

Hizkuntzak



Miguel Angel GOMEZ
Ingelesko irakaslea

Euskara, gaztelania eta ingelesa dira Karmengo Amako hiru hizkuntzak.

Nolako trataera jasotzen dute proiektuaren barnean hizkuntzek?

Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrak ditugu hemen eta B eta D ereduak, baina Lehen Hezkuntzako lehen ziklora arte euskaraz ikasten dituzte gai guztiak. Euskararen aldeko diskriminazio positiboa egin da.

Bestalde, hizkuntzen batzordeak ere lan interesgarria egin du.

Zein izan da lan hori?

Alde batetik, eskola barruko eta inguruko euskararen egoeraren diagnostikoa egin du. Eta bestetik, haurren hizkuntza gaitasunari buruzko ebaluaketa prozesu bat hasi du.

Zer esan daiteke beste partaideei buruz? Gurasoak, begiraleak...?


Alde horretatik ere batzordeak lan handia egin duela aipatu behar da. Gurasoentzako euskarazko klaseak prestatu dira eta begirale guztiak euskaldunak dira.

Partaide desberdinak

Heziketa komunitatea heziketa zeregina bihurtzea beharrezkoa da hau guztia martxan jartzeko. "Daukagunarekin egin dezakegu" pentsatu behar dugu, baina daukaguna ez da eskola soilik. Auzoa, gurasoak, aisialdiko taldeak, auzoko elkarte kulturalak, zerbitzu sozialak eta abar dauzkagu eta guztiek osatzen dute ikasketa komunitatea.



Gurasoak



Julian LAVADO
PATEko aholkularia eta proiektuaren bultzatzailea

Gurasoak ere partaide garrantzitsuak dira proiektuan eta beraien partaidetza bultzatzea klabea da. Julian Lavadok azaltzen digunaren arabera, guraso eta ikastetxearen artean ikasketa kontratu bat egin da.

Zertan oinarritzen da kontratu hori?

Guraso taldeak elkartu eta egin duten agiri bat da. Bertan, eskolarekin zertan parte hartu nahi duten adierazi dute, hau da, ekintza zerrenda bat egin dute.

Zein da kontratu honen erabilgarritasuna?

Erabilgarritasun bikoitza du.

Alde batetik guraso guztiek bere gain hartu dute kontratua eta beraientzat heziketako gai eta kezka garrantzitsuenak zeintzuk diren azaldu dute bertan: neska-mutilen jokaerak, irtenbide pedagogikoak, etxerako lanak, gurasoen beraien prestakuntza eta abar. Beraz, kontratu honen bidez irakasleok bada-kigu zeintzuk diren gurasoen kezkak.

Bestetik, eta bigarren erabilgarritasunari helduz, kontratua kontuan harturik irakasleok gurasoei prestakuntza eskaintzeko hitza eman diegu. Baina ez helduen eskolako prestakuntza klasikoa gai orokor eta abstraktuetaz hitz egiteko, baizik eta beraien aukeratutako gaietaz hitz egiteko eta lantzeko. Gurasoentzat elikadura, ametsak, telebista, jokaerak, haserreak eta abar baldin badira interesa duten gaiak, gai horri buruz dakiten adituak ekarriko ditugu.

Dena dela, askotan ez al dira galduta sentitzen eskolako zereginetan?

Bai, orain arte halaxe izan da. Gauza konkretuak egiteko esanez gero, berehala prest agertzen dira. Adibidez, liburutegia pintatzeko, apalak jartzeko eta abar. Baina proiektuan bilera, ebaluaketa, inkestak eta abar egiten direnean, askotan lekuz kanpo sentitzen dira, ez dakite zertan lagun dezaketen.

Horregatik da garrantzitsua aipatu kontratua. Beraiek proposatutako gaiak dira, beraiek aukeratutakoak, eta askoz ere inplikatuagoak daude.

Irakasleak



Juan Carlos ALDUNTZIN
Teknologia berrietarako
koordinatzailea

Mari Kruzek aipatu bezala, sentsibilizazio etapa gogorra izan arren irakasle guztiak gogoz inplikatu dira proiektuan. Horrez gain, garrantzitsua da irakasleriaren egonkortasuna ere, hori baita epe luzeko egitasmoen berma. Karmengo Ama ikastetxean irakasleriaren %80 egonkorra da eta hiru urte hauetan aldaketak ez egiteko eskaera luzatu zioten Eusko Jaurlaritzari.

Juan Karlos Alduntzin irakasleak ilusioz ekin diotela dio eta barneko eztabaidek giroa berpiztu dutela.

Zeintzuk izan dira hasierako zailtasunik handienak?

Gehien kosta zitzaiguna gizartea alda dezakegula sinestea izan zen. Beste gizarte baterako prestatu behar ditugu haurrak, 2010. urteko gizarterako. Baina zein gizarte mota egongo da orduan? Hori ez dakigu ziur

eta horregatik suertatzen zaigu zaila.

Ezinbestekoa da, beraz, irakasleok aldaketa hori egiteko gai garela sinestea.

Bai, hori da lehenengo pausoa. Behin hori barneratuta errazagoa da. Argi dago gizartea aldatzen ari dela eta eskolak gizarte berri horretara egokitu behar duela.

Proiektuaren muga bezala 2010. urtean jarri duzue. Zer dela eta urte hori?

Eskolan orain sartzen diren haurrak 2010. urtean 20 urte izango dituztelako, hots, beraien ikasketak bukatzeaz egongo dira. Gizarteari aurre egin beharrean egongo dira, gutxi gora-behera 2010. urtekoari eta guk gizarte horretarako prestatu behar ditugu.

Helburuen artean eskolaren maila igotzea aipatu duzue. Zer suposatzen du horrek?

Haurren mailari ez diogula mugarik jarri behar suposatzen du eta hori onartzea. Guk mailarik altuena eskaini behar diegu eta bidean bakoitzak bere neurria hartuko du. Orain arte ez genuen horrelakorik egiten. "Horrelako haurrak ditugu" pentsatzen genuen eta eskaintzen genien maila jeitsi egiten genuen. Eta ez du horrela izan behar. Maila goian dago eta guk goi horretara iritsi behar dugu, gaitasunak maximoraino garatu behar dira.

Gizarteko aldaketetarako prestatzeak zein aldaketa dakartza eskola mailan?

Antolaketa pedagogikoa aldatu egiten da.

Etorkizuneko haurrentzat garrantzitsuak kontsideratzen ditugun puntuak kontuan hartu beharoko ditugu eta horren arabera aldatu. Metodologiak egongo garen gizarte horretara egokitu behar du. Ondorioz, talde malguak, ikasketa kooperatiboa... izango dira ardatz.

Irakaslearen irakasteko metodologiak ere aldatu egin beharoko du, orduan.

Bai, hala da. Orain arte ikasleei dakigun guztia eta testu liburuetan agertzen dena irakasten ohituta gaude. Baina egin behar dugun aldaketa zera da: ez diegu informazioa eman behar, informazioa bilatzen, lantzen eta erabiltzen irakatsi baizik.

Aldaketa handia da eta irakasleoi beldurra sortzen diguna, gainera. Orain arte oso seguru geunden arbela, liburua eta paperarekin. Baina horiek kenduz gero... Teorian argi ikusten da eman beharreko aldaketa, baina praktikan zaila egingo zaigu.

Gurasoekin, eragile sozialekin, begiraleekin eta abar lan egiteak zer suposatzen dezake?

Denok batera lan egiteak koordinazioaren beharra ekarriko du. Egia esan, inor ez da arrotza eta orain arte ere denok aritu gara haurren heziketan lanean, baina bakoitza bere kabuz. Gauza da guztiok helburu bera dugula eta norabide bereko txalupan sartu garela. Bakoitzak bere egitekoa du eta ez da eskolaren zeregina soilik. Heziketaren komunitatea aldatu egiten da, nolabait esateko. Heziketa ez da akademikoa soilik, dimentsio soziala du.

Eragile sozialak

Zeintzuk dira eragile sozialak?

Ikastetxetik kanpo hurrekin lan egiten dutenak dira eta talde asko daude. Adibidez, Gizarte Ongizate zerbitzua da bat. Haur eta gurasoekin harremana duen entitatea da eta eskolak ere erlazioa eduki behar du berarekin.

Bestetik, eskolaz kanpoko ekintzak edo extra-eskolarrak daude. Eta baita aisialdiko taldeak ere. Guztiek gure bileretan parte hartzen dute eta dagoeneko elkarlana hasia dago.

Zein da talde guztien arteko

elkarlanaren abantailarik adierazgarriena?

Ideiak eta esperientziak elkartrukatzeko aukera. Bakoitzak bere harremana du hurrekin eta ekintza desberdinak burutzen ditu. Guztiak ezagutzeko aukera ematen du elkarlanak. Horrela hutsuneak ikusteko eta haurrak hobeto ezagutzeko posibilitatea dago.

Idea berriak, metodologia berriak, ordu-tegi berriak, antolaketa egitura berriak eta erabakiak hartzeko talde guztien arteko adostasuna dira sortzen diren planteamenduak besteak beste.




Mari Kruz ORTEGA
Ikastetxeko zuzendaria

elkarriketa

TXUS CONGIL

Gizarteak eskolara eraman ditu arazoak, baina ez dio tresnarik eman arazo horiei erantzuteko



Txus CONGIL

Izadia Askagintzatik sortutako ikerketa kabinetea da. Gizarte arloan ikertzeko, eskuhartzeko eta hezitzeko tresna izan asmoz sortu zen. Dozena bat pertsona daude kabinete honetan eta tartean Txus Conjil. 11 urtetan irakasle lanetan aritua da eta azken 11 urte hauetan, berriz, prestakuntza mailan dabil, hezitzaileak prestatzen.

Zer da Izadia?

Izadia gizarte gaiak ikertzeko kabinetea da. Eginkizun nagusienak aholkularitza, heziketa, ikerketa, baliabideen eskaintza eta eskuhartzeko programen garapena ditu.

Nortzuk osatzen duzue kabinetea?

Kabinete interdiziplinarra da, hots, psikologoak, hezitzaileak, pedagogoak eta gizarte laguntzaileak gaude. Soziologoek kolaborazioa ere jasotzen dugu. Beraz, ikusten duzuen bezala, espezialitate desberdinetakoak gara eta hori oso aberatsa da. Bakoitzak bere lan egiteko modua eta ikuspuntua ditu eta guztiak batzeak abantailak ditu.

Zer eskaintzen du izadiak? Zeintzu dira bere zerbitzuak?

Elkarte, hezkuntza zentro, erakunde eta abarren zerbitzuentzako tresna izatea da gure xedea. Guk aholkularitza, heziketa, azterketa, ikerketa, partehartzea eta abar eskaintzen ditugu.

Momentu honetan ikerketa desberdinak ari gara aurrera eramaten: Emakumea eta drogomenprkotasuna, integrazio sozio-hezitzailea, ebaluaketa prozesuak...

Ikastaroak dira beste zutabe garrantzitsuak. Ikastetxe, elkarte, instituzio, guraso eta abarrei ematen dizkiegu ikastaroak. Momentu honetan Gipuzkoan 22 guraso talde ezberdin ditugu eta ikastetxeei dagokienez 17.

Zein ikastaro mota dira?

Ikastetxeetan ematen ari garen ikastaroa Integrazio sozio-hezitzailea delakoa da. 20 orduko ikastaroa da eta klaustro osoak parte hartzen du. Lehenengo orduan dokumentuen aurkezpena egiten dugu eta gainontzeko orduak saioak, lantaldeak, dinamikak, rol jokuak eta abar dira. Oso dinamikoa da ikastaroa. Ikastetxeek arazoak dituztelako dei-

“Behar den prestakuntza zera da: nerabeen egoera momentu honetan nolakoa den jakitea eta haiekin komunikatzea, eta ez zigorrak, kontratuak eta abar egitea”

tzen digute, eta gure helburua gatazkak gainditzen laguntzea da.

Izan ere, arazoak hor daude Erreforma gauza berriekin etorri da irtenbidea eman nahian, baina ez du horrelakorik lortu. Orduan, zer egiten dugu? Errua elkarri bota. Eta ez da hori egin behar duguna. Horren orde arazoa ondo aztertu behar dugu eta bakoitzak bere ardurak hartu: gurasoak, ikasleak, irakasleak eta administrazioak, guztiak.

Zeintzuk dira eskuarki planteatzen diren arazoak?

Eskaera gehienak Osasun Heziketari lotuta etorri zaizkigu. Gehienak drogomenpekotasuna, prebentzioa edota sexualitateari oso lotuta daude. Zeharlerro bezala planteatuta dauden gaiak dira, Erreformen hitz politex agertzen direnak, baina irakasleak gai horiek aurrera eramateko tresnarik gabe aurkitzen dira. Hezkuntza sistemak didaktika mailako tresnak ematen ditu, baina gizarte mailako arazoak eta gatazkak konpontzeko planifikazio sozio-hezitzailea behar da.

Zer esan nahi duzu zehazki planifikazio sozio-hezitzailea delakoa-ekin?

Bada, irakasleok gai horiek lantzeko prestatuak gaudela eduki, material eta liburu aldetik, baina ez dakigula nola erabili material hori. Ez da Historia edo Matematika irakastea bezala. Drogomenpekotasunaz edo sexualitateaz hitz egitean norberaren bizipenak tartekatzen dira. Edukia eta bizipenak lotu behar ditugu eta koherenteak izan behar dugu, noski.

Koherentziarekin batera sinesgarritasuna eta giro lasaia lortu behar ditugu eta hori komunikazioaren bidez lortzen da. Niretzat heziketa komunikazioa da eta hori lortzeko ezin dira edukiak soilik aintzat hartu. Komunikaziotik sortzen dira arazoentzako erantzunak.

Horregatik, egoera hau lortzeko planifikazio sozio-hezitzailea egiten dugu ikastaroetan. Ez da planifikazio didaktika bat soilik. Didaktika da edukiak irakasteko balio duen heinean, baina lehen esan dugun bezala, arazoa ez da edukie-

TXUS CONGIL

e

“*Irakasleak ez gara gurasoak, ez gara psikologoak, ez gara administrazioa. Profesionalak gara eta gure lana edukiak sinesgarritasunez zabaltzea da*”

na soilik, bizipenak, koherentzia eta abar ere hor daude.

Beraz, hori dena komunikazioaren teoriaren arabera aztertzen dugu, metodologia orokorrago batekin eta interbentzio diseinua ondo aztertuz. Adibidez, zein den egoera, zer aldatu nahi dugun, zeintzuk diren eskaerak, zeintzuk diren oztopoak eta zailtasunak eta zein den arazo honetan familiaren, irakasleriaren eta zerbitzu sozialen papera.

Hori guztia planifikatu ondoren, zein da hurrengo pausoa?

Ezarpena. Planifikazio hori praktikan jartzen da. Batzutan irakasleriaren jarraera aldatu egiten da, gurasoekin akordio moduan hitz egiten da eta ez gatazka moduan... Oso polita izaten da hasierako egoera eta 20 orduko ikastaroaren ondorengo egoera konparatzea. Bi hilabete eta erdi ondoren egoera aldatu egiten da.

Hurrengo bi hilabetetan ere jarraipena egiten da eta kurtso amaieran ebaluaketa.

Horrelako ikastaro bat egiteko irakasleen iraunkotasunak zenbaterainoko garrantzia du?

Izugarria. Klaustro iraunkorra izatea ezinbestekoa dela esango nuke nik. Batzutan ikastaro bat hasi eta hiru edo lau aldaketa jasatzen ditu klaustroak

ikastaroa bukatu aurretik. Ni aspalditik ari naiz esaten irakasle bakoitzak gutxienez bost urte egon behar duela eskola batean. Badakit eskubide sindikalak daudela, baina hezkuntza mailan eta pedagogikoki zentroa eta ikasleak ezagutu eta integratzeko bost urte horiek beharrezkoak dira.

Irakasleon egoneza da ikastaro hauek emateko arrazoa. Baina drogomenpekotasuna, sexualitatea, prebentzioa eta abar ez dira irakasleok bakarrik konpondu behar ditugun arazoak, ezta?

Arrazoi duzu. Alde batetik, irakasleok errekonozimendu sozial gutxi daukagu eta bestetik, exijentzia sozial handia. Horren ondorioa da irakasleon egonezina. Horregatik egoera desdramatizatu egin behar da. Eskolan ez dugu iraultza handirik egingo, baina beharbada txikiak bai. Gauza da hezkuntzan profesional onak daudela sinestea eta irakasleon papera errekonozitzea. Irakasleak ez gara gurasoak, ez gara psikologoak, ez gara administrazioa. Profesionalak gara eta gure lana edukiak sinesgarritasunez zabaltzea da, eta hor dago koska. Gai batzuk ezin ditugu ulertu, ez dakigu zer gertatzen ari den, zergatik joaten diren gazteak gogorik gabe eskolara... eta azkenean ezintasuna sortzen zaigu eta ordutegia betetzera mugatzen gara, ahal



dugun neurrian ikasgaia ematera.

Horrela Erreforma atzeratzen ari da. Betiko ikasgai eta materialekin gaude, betiko moduan irakasten, metodologia aktibo edo pasiboagoarekin, baina ikaslea ez dago erdigunean.

Orduan, nor da egonezin horren erantzulea?

Nire ustez momentu honetan irakas-kuntzako egonezinen eta ikasle-irakasleen arteko inkomunikazioaren erantzule nagusia administrazioa da. Administrazioak Erreforma inposatu du eta ez da benetako eztabaidarik egon. Zentroen autonomiaz hitz egiten da, baina autonomia hori oso murrizta da.

70-80ko hamarkadako "Movimiento de Renovación Pedagógica" oso mugimendu polita izan zen, baina ez genuen ezer lortu administrazioaren aldetik eta irakasleok erre egin ginen. Orain, aldiz, Estatuko administrazioa erreformatu egin behar dela esanez etorri da; paperean dena oso polita, baina aplikazioak hasi direnean izugarriko arazoak sortu dira. Momentu honetan irakasleak erabat nahastuta gaude.

Gizarteak eskolara eraman ditu arazoak, baina ez dio tresnarik eman arazo horiei erantzuteko. PATetan ere horixe gertatzen da. Ez dute tresnarik, zenbait zentrok ez ditu ezagutzen eta kriterioak ez daude finkatuta.

Irakasleak formazioaren beharrean aurkitzen dira, baina ez edukien formazioa, horretarako materialak eta liburuak badaude. Behar den prestakuntza zera da: nerabeen egoera momentu honetan nolakoa den jakitea eta haiekin komunikatzea, eta ez zigorrak, kontratuak eta abar egitea.

Erreformak ez badu hori lortu, beste erreforma baten beharrean al gaude?

Ez nuke ezetzik esango. Momentu honetan ikasleak ez daude ikasteko motibatuta irakaskuntza beraien interesetatik at dagoelako. Bestetik, irakasleak psikologo eta guraso ez direla pentsatzen ari dira. Ikasleak eskolaz eta gurasoez kexatzen dira, gurasoak irakasleez eta irakasleak familiaz. Bitartean, botereak, siste-

mak, eskuak garbitzen ditu.

Irakasleak, ikasleak eta gurasoak, guztiok itsasuntzi berean gaude. Itsasuntzia urez betetzen ari zaigu eta beharbada eskola berria sortu beharko dugu. Adostasunera iritsi, minimo amankomunak jarri, kontsentsuatu eta benetan irtenbideak eman.

Dena dela, aldaketak guztiak zailak izan ohi dira. Zeintzuk dira abiapuntu nagusienak?

Hasteko hiru gauza planteatzen ditugu:
1- Irakaskuntza globalki aztertu behar da, partzialtasunak alde batera utzita.

2- Arduradunak bilatu behar dira eta ez errudunak.

3- Balore sistemak adostu behar dira. Irakasle bakoitzak bere balore sistema dauka eta printzipioz lejitimoa da, baina klaustro bezala adostasunera iritsi behar da eta ezin du bakoitzak berearekin ibili. Zeren norabiderik gabeko nerabeak ez baititu norabiderik gabeko helduak behar.

Zer gerta liteke balore sistema horien adostasunera iristen ez bagara?

Epaiak egingo ditugula eta epaiak komunikaziorako oztopo dira. Adibidez, nik homosexuala naizela esaten badizut eta zuk aurpegiarekin epaitzen nauzula ikusten badut, zurekiko komunikazioa eten egingo da.

Zuek hau guztia kanpotik ikusten duzue ikastetxeetara joandakoan. Zer suposatzen du horrek?

Errealitatea, arazoak eta gatazkak ikastetxeetan daude eta han bizitzen dira. Guk kanpotik ikusten ditugu, ez dugu hainbesteko eraginik jasotzen, objetiboagoak gara eta ikuspegi zabalagoa daukagu. Azkenean kontrastea egiteko baliogarria da.

Zein da orain arteko esperientziaz egiten duzun balorazioa?

Eduki eta metodologia aldetik asma-tu dugula esango nuke. Gauza ez da materiala aurkeztea, arazoak nola konpon daitezkeen erakustea baizik, eta



hori lortu dugu.

Gainera prestatu dugun materiala edo formazio programa ezberdina da, hau da, egoera eta ikastetxe bakoitzari egokitua. Zentroa da ezberdintasuna markatzen duena eta gu zentroa egokitzen gara, ez zentrori gure eskaintzara.

Hala ere, oraindik baditugu hobetu behar ditugun gauzak.

Zeintzu dira hobetzeko daukazuen arlo horiek?

Alde batetik ebaluaketarena. Gure formazioak eguneroko praktikan duen eragina neurtzea zaila suertatzen zaigu. Nola neurtu hori familiarekin, irakasleekin...?

Bestetik, euskararen hobekuntza falta zaigu materialei dagokienez. Gure zailtasunik handiena euskara teknikoa da. Bai dokumentuetan eta bai gure formazioan gaztelera izan da nagusi. Lehenengo materiala ere gaztelera osatu dugu, baina hala ere, ikastaroak euskaraz ematen ditugu. Komunikazio hizkuntza euskara da, nahiz eta oraindik dokumentu gehienak gazteleraz eduki. Zeren, zenbait material euskaratuak ditugu, baina ez gara gustura gelditu egin dizkiguten itzulpenekin. Horregatik, gure erronka eta erabakia geu alfabetatzea eta geuk itzultzea da.

Euskararen gramatikaren jabekuntza ikastaroa

Maiatzak 22 (8 ordu)

Hizlariak, beraien ikerketetan jasotako adibideetatik abiatuz, ikaste prozesuan ematen diren aroak eta aro bakoitzaren berezitasunak aztertuko dituzte. Datu hauek erreferentea izan daitezke ikasleen hizkuntza behatzeko eta beraien portaerak garapen prozesuan kokatzeko

ORDUTEGIA

Goizez: 9:00etatik 13:00etara

Arratsaldez: 15:00etatik 18:00etara

IRAKASLEAK

Andoni Barreña (Salamanca Unibertsitatea)

Kristina Elozegi (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Maria Jose Ezeizabarrena (Euskal Herriko Unibertsitatea)

LEKUA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatza (Gipuzkoa)

MATRIKULATZEKO EPEA

Maiatzaren 20ra arte

MATRIKULA

5.000 pta.

Interesatuok transferentzia bidez ordaindu.

Kontu korrante zenbakia 3035 0004 89 044410234.

Zure datuak eta ordainketa agiria Fax-ez bidali helbide honetara:

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

Erref. "Ikastaroa"

Fax zenbakia: 943 71 40 32



Mondragon Unibertsitatea

Dorleta auzoa z/g

20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Tfnoa: 71 41 57

Faxa: 71 40 32

Emaila: sarrer@huhezi. edu

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
160 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160

**LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA**

Tel: 943/ 37 15 45

Faxa: 943/ 36 10 48

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

27

Generoak eta
sekuentziazioa
hizkuntza arloko
curriculumean
JOAQUIM DOLZEN
eskutik

Mondragon
Unibertsitatea

“Bizitzan zehar oso garrantzitsua da generoak menperatzea”

Mondragon Unibertsitateak Joaquim Dolz Ginebrako Unibertsitateko irakaslea gonbidatu zuen otsailaren 20an. “Generoak eta sekuentziazioa hizkuntza arloko curriculumean” izenburupean eskaini zuen hitzaldia Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Ikasteko-irakasteko prozesuan generoek duten garrantzia azpimarratu zuen, bai genero idatziak baina baita ahozkoak ere. Generoak lantzeko sekuentzia didaktikoak erabiltzea dela egokiena azaldu zuen. Gai interesgarri bezain erakargarri honen inguruko xehetasunak eskatu asmoz jo dugu berarengana.

Gaur egun Ginebrako Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean dihardu lanean Joaquim Dolzek, Hizkuntzen Didaktika taldean, hain zuzen ere. Horrez gain, badira hamar urte Hezkuntza Saileko kolaboratzaile dela eta kolaboratzaile zientifikoaren titulua du. Irakasleriarren prestakuntzan eta irakaskuntzarako baliabide berrien egituraketan sarturik dago. Momentu honetan ahozko eta idatzizko adierazpenaren irakaskuntza baliabideak zuzentzen ditu frantsesez hitz egiten den Suitzako zazpi kantonetan.

Ikerketak egitea ere oso gustuko du. Bernard Schneuwly eta St. Paul Broncard-ekin idatzizko testuen ekoizpena-

ri buruzko ikerketak egin ditu. Orain dela bi urte, berriz, ahozko genero publikoa aztertzen hasi zen. Genero mota hau derrigorrezko irakaskuntzan nola garatzen den ikertzen ari da.

Zer da zuretzat generoa, nola definituko zenuke?

Genero testualaren kontzeptua M. Dakthine autore errusiarrak asmatu zuen. Autore honi izugarri interesatzen zitzaion generoen sorrera. Berak hiru dimentsio eman zizkien genero testualei:

1- Edukiak: genero bakoitzak bere edukia du. Adibidez, polizi nobela batean badakigu susmagarri bat egongo dela, detektibea eta abar. Arrainei



Joaquim DOLZ

buruzko entziklopedia batean, bestalde, arrainei buruzko informazioa egongo da. Baina bai batak zein besteak, bere ezaugarri propioak ditu eta desberdintasuna gaiak ezartzen du.

2- Antolaketa komunikatiboa edota testuaren antolaketa.

3- Hizkuntz unitateak. Adibidez, "behin batean..." edota "egun batean..." esaten edo idazten badut, baka-kizu ipuin bat dela. Beste generoengandik bereizten duten hizkuntz ezaugarriak ditu.

Zergatik dira garrantzitsuak generoak hizkuntza baten irakaskuntzan?

Ikasleentzat esanahia duen irakaskuntza errazten duen lan-unitatea delako. Komunikazio egoera inplikatzeko du, testua bere osotasunean lantzen da eta funtzio baten arabera. Horregatik ematen diot garrantzia hasiera-hasieratik.

Ahozko eta idatzizko adierazpena lantzerakoan tresnatzat hartzen dugun lan-unitatea generoa da. Zergatik? Haurrek berehala ezagutzen dituztelako generoak. Gizarteak testuak izendatzerakoan generoen izenak erabiltzen ditu eta haurrek ere horiek ikasten dituzte. Hau eztabaida, ipuina, eleberria, olerkia edota elkarriketa da, esaten da gizarte mailan.

Zuk genero publikoa aztertu duzu azken ikerketan. Zer ulertu behar duzu genero publiko bezala?

Eztabaida, prentsa edo irrati elkarriketa, besteei ipuina irakurtzea, sukaldarako errezeta baten aurkezpena, ahozko erakusketa, hitzaldia... horiek guztiak dira genero publikoak.

Zergatik landu behar dira genero hauek derrigorrezko irakaskuntzan?

Bizitzan zehar oso garrantzitsua delako genero hauek menperatzea. Ez eguneroko bizitzako ahozko komunikazio edo generoa soilik, baita bizitza publikoko erabilpen desberdinak ere.

Genero ugari daude: eleberriak, ipuinak, hitzaldiak, elkarriketak, errezetak... baina guztiak bi multzo nagusitan bana daitezke: ahozko eta idatzizko generoak. Irakaskuntzan bereiztu egin behar al dira?

Biak dira garrantzitsuak eta ez ditugu bereizten. Baina zera gertatzen da: orain dela bizpahiru urte arte idatzizko generoak lantzeko materiala prestatu dugula. Sekuentzia Didaktikoaren kontzeptua proposatu genuen idatzizko generoak lantzeko: iritzi artikulak, ipuinak, zientzia fikzioa, eleberria, polizia-zeleberria, jokuetarako arauak, objektu bat egiteko oharrak,

"Zenbait tailerretako lana kontrolpeko egoerak sortu eta ahozkotasuna lantzea da, eta irakasleon zeregina zailtasunak dituztenean laguntzeko esku hartzea da"



azalpenak, laburpenak...

Maila honetan asko aurreratu dugu, baina orain ahozkoa gelditzen zaigu. Azken bi urteotako ikerketan Sekuentzia Didaktiko hori ahozko generoak lantzeko erabili dugu.

Zer landu daiteke ahozko generoen barruan?

Hizkuntza normalizatu baldin bada go ahozko publikoa lantzea interesgarriagoa da. Haurrek eguneroko bizitzako ahozko generoak menperatzen dituzte eskolara iristen direnerako.

Baina hizkuntza normalizazio prozesu batean badago egoera desberdina da, eta horixe da euskararen kasua. Horrelako kasuetan eguneroko bizitzako ahozko generoak ere landu egin behar dira, haurrek ez baitituzte menperatzen, oraindik euskaraz ez baitakite.

Generoak Sekuentzia Didaktikoen bidez lantzen dituzuela aipatu duzu. Zer da Sekuentzia Didaktikoa?

Generoak lantzeko tresna edo baliabidea da. Zehazkiago esanda, denbora mugatua duten lan-tailer batzuk ikasleek dakitena hobetzeko eta ez dakitena ikasteko.



Nola antolatzen dira tailer hauek?

Lehenengo, sozialki interesgarria iruditzen zaigun ahozko edo idatzizko genero bat aukeratzen dugu. Adibidez, irratiko elkarrizketa. Ondoren, irratiko elkarrizketen bilduma egiten dugu eta beraien ezaugarriak aztertzen ditugu. Azterketa horren ondoren, irratiko elkarrizketaren eredu didaktikoa osatzen dugu. Eredu horrek derri-gorrezko irakaskuntzan irakats daitezkeen elementuak biltzen ditu.

Behin eredu didaktiko orokor hori egin ondoren, sekuentzia didaktikoak egiten ditugu, hau da, eredu hori ziklo bakoitzean lortu nahi ditugun helburuen arabera zatitzen joaten gara. Horrela, ziklo bakoitzean zer landu dezakegun ikusiko dugu.

Zergatik banaketa hau?

Garrantzitsua delako ez errepikatzea. Garrantzitsua da ikasketaren garapenean genero bera berriro lantzea ikasleari garatzeko aukera emateko, baina helburu desberdinekin egin behar da, gero eta konplexuagoak diren helburuekin.

Sekuentzia hauek denbora aldetik mugatuak direla esan duzu, ezta?

Bai, bizpahiru astetan lantzekoak dira, ikasleek haria gal ez dezaten.

Eta, aldaketa edo garapenik nabaritzen al da?

Bai. Sekuentziekin hasi aurretik testu bat egin arazten diegu ikasleei eta sekuentziaren ondoren beste bat euren diferentzia ikus dezaten.

Zein da irakasleon zeregina sekuentzia hauek lantzeko garaian?

Irakasleok hasieran ikasleen gaitasunak eta zailtasunak zeintzuk diren ikusi behar dugu. Bukaeran eman duten aldaketa aztertzerakoan zertan aurreratu duten eta oraindik zer falta zaien hartu behar dugu kontuan, hurrengo sekuentzian puntu horiek lantzeko.

Argi utzi nahi dut guk eskaintzen ditugun Sekuentzia Didaktikoak lane-rako tresna direla. Hau da, guk material horren beharra dagoela ikusten dugulako sortzen dugu eta ikastetxeetan dauden talde pedagogikoei zaila suertatzen zaielako horrelako testuak biltzea. Baina Sekuentzia hauek modularrak dira. Hau da, ez diogu irakasleari tailer horiek jarraitu behar dituenik esaten, baizik eta bakoitzak bere

“Sekuentzia Didaktikoaren kontzeptua proposatzen dugu idatzizko generoak lantzeko”

ikasleen gaitasunaren arabera moldatu behar dituela.

Zein da ikasleen funtzioa, egitekoa sekuentziotan?

Ikasleek parte hartzea oso garrantzitsua da. Hitz egin, ideiak elkartrukatu, entzun eta ezagutzen ez dituzten elementuak aurkitu behar dituzte ahozko testuak aztertuz. Baina ondoren irakasleon papera funtsezkoa da ikasleei zailtasunak gainditzen laguntzeko.

Zenbait tailerretako lana kontrolpeko egoerak sortu eta ahozkoatasuna lantzea da, eta irakasleon zeregina zailtasunak dituztenean laguntzeko esku hartzea da.

Sekuentzia edo tailer bakoitzean gauza desberdinak lantzen baldin badira, helburu desberdina dutelako izango da, ezta?

Bai, noski eta helburu horiek mailaren arabera ezartzen dira. Adin txiki-koekin hasten garenean genero sinpleagoak lantzen ditugu. Esaterako, 6-7 urtekoekin lantzen dugun sekuentzia batean sukaldarako errezeta bat aurkezten ikasten dugu. Ez dugu eginez edo platerak prestatuz ikasten, irratirako emisioa balitz bezala baizik.

Lehen Hezkuntzan eztabaida ere lantzen da eta ikasle guztiak betetzen dute moderatzailearen papera. Horrela, moderatzailearen funtzioak ikasten dituzte, eta partehartzaile moduan daudenean hitz egiteko txandak errespetatzen dituzte.

Lehen Hezkuntzako helburuetariko bat eztabaiden kasuan, kontrakoaren aurrean kontrako arrazoiak azaltzen ikastea eta partehartzaile baten iritzia berekoak diren esku hartzei leku egiten ikastea da.

Bigarren Hezkuntzan helburuak desberdinak dira norberaren diskurtsoan besteen posizioa barneratu arazten diegulako. Hau da, besteen iritzia euren diskurtsoan sartu behar dute, bai adostasuna adierazteko bai kontra egiteko.

Tailer bakoitzean ikasleek dute zail-

tasun bat lantzen da eta azkenean eztabaida berri bat egiten da tailer bakoitzean ikasitakoa barneratzen saiatzen direlarik.

Hau guztia teoria mailan garbi ikusten da. Baina praktikan jartzeko laguntzailerik ez badugu?

Sekuentzia Didaktikoak praktikan jartzeko irakasleriaren prestakuntza beharrezkoa da, bai. Eta hemen, Euskal Herrian bai PATeko laguntzaileak eta bai Eskoriatzako Irakasle Eskolako langileak horretan jardun dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi arazorik eta zailtasunik ez dagoenik, baina prestakuntza jarraia jaso duten irakasleen lan egiteko moduan aldea nabaritzen da. Eta taldean lan egiten dutenen artean, zer esanik ez. Emaitzak askoz ere hobekak dira irakasleria osoak batera egiten badu lana, taldean, alegia.

Zeintzuk dira zure iritziz ahozko eta idatzizko generoen arteko desberdintasunak?

Orokorrean esanda beren materialtasunagatik desberdintzen direla esango nuke. Ahozko generoaren kasuan, aparatu fonikoa da sortzailea: ahoa, erresonantziak, aho-kordak... eta genero idatzia guztiz desberdina da.

Baina ezaugarri material hauetatik at, oso zaila da desberdintasun finkoak ezartzea bien artean. Nik uste dut errazagoa dela genero bakoitzaren ezaugarriak konkretuki bereiztea. Adibidez, pertsona baten hitzaldia bakarriketa da eta pertsona batekin baino gehiagok hitz egiten badute elkarriketa. Bakarriketa eta elkarriketaren arteko desberdintasunak elkarriketa eta eleberriarren artekoak bezainbestekoak izan daitezke.

Hala ere, askotan ahozko eta idatzizko generoen arteko diferentziari kutsu negatiboa ematen zaio. Izan ere, ahozkoa behe mailakoa dela uste dugu eta hori ez da horrela. Goi mailakoa ere izan daiteke. Aniztasun izugarria dago.

Biak batera lantzen baditugu, bereizi gabe, zer eragin izan dezake bata bestearengan?

Eragina alde batetik zein bestetik sor daiteke. Adibidez, Ginebran ikasleen %40ak jatorri ez frankofonoa du. Oso leku anitza da, haur atzerritar asko dago eta jatorrizko hizkuntzak oso desberdinak dira: espainiarrak, portugesak, albaniarak, serbiarrak, kroaziarrak eta abar. Eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzan lurraldeko hizkuntza ikasi behar dute eta lehenengo eguneroko bizitzako ahozko generoak lantzen dira. Geroago heltzen zaio hizkuntza idatzitari, testuen idazketari eta irakurketari.

Baina bien arteko elkarrengana ere berehala sortzen da. Adibidez, ahoz erabiltzen dutena gutun bat idazterakoan ere erabil dezakete. Eta argudiozko gutunak idazten ikasten dutenean, hori ere erabil dezakete ahozko argudioetan.

Honek guztiak zer eragin du irakaskuntza ereduan?

Beno, Sekuentzia Didaktikoak lantzen hasteko beti proiektu batetik hasita egiten da. Esaterako, ipuinak idazteko Sekuentzia Didaktikoa proiektu bezala erabil daiteke eta ikasketa guztietarako zabaldu. Eta beste gauzen artean, beste ikastetxe bateko ikasleekin polizia eleberririk truka ditzakegu. Honek beste motibazio bat sortzen

du. Baina ikasleek genero bat lantzen ari direla jakin behar dute.

Irakaskuntza modu hau konstruktibista dela esan al daiteke?

Noski baietz. Konstruktibista da ahozko eta idatzizko gaitasunak erakitzea delako gure nahia. Baina konstruktibista soziala da. Ezagutza eta gaitasun horiek irakasleonek eta beste ikasleonek parte hartzearekin jasotzen dira. Hizkuntza komunitateko kideen arteko elkarrekintzaren ondorioz erakitzen da, eta eskolan ikasleonek arteko elkarrekintzaren eta batez ere irakasleonek esku hartzearen ondorioz. Haurrek euskara jakingo ez balute eta irakaslea egongo ez balitz, ez lukete euskaraz hitz egingo.

Gauza anitz kontatu dizkiguzu. Nola ikusten duzu hau guztia gure eskoletan?

Irakasleok euskara bultzatzeko egin duzuen esfortzu itzela azpimarratu nahi nuke. Haur askok ez dakite euskara eta gurasoek ere ez. Baina hala ere, ikasle horiek euskara ikasi dute eta euskaraz mintzatzen dira. Lan izugarria egin duzue.

Baina ez da nahikoa. Gizarteak ere bide bera egin behar du. Eskoletan ematen diren aurrerapauso horiek gizartearen jarraipena izan behar dute eta hori lortu behar da orain.



Pauso praktikoak

Joaquim Dolzek generoen eta Sekuentzia Didaktikoen inguruko ideia garrantzitsuenak azaldu dizkigu. Hitz bitan esateko, generoek ahozko eta idatzizko hizkuntzak lantzeko bidea ematen dutela azpimarratu digu. Eta bide hori lantzeko Sekuentzia Didaktikoak erabiltzea proposatu digu. Sekuentzia bakoitzean helburu batzuk finkatuz genero desberdinak lantzen dira.

Horretarako generoak taldekatzea edo multzokatzea proposatzen digu Dolzek, 1. taulan ikusten den bezala.

Oinarrizko lana egiteko bost taldetan banatzen ditu generoak. Taldekatzea egiteko hiru irizpide hartu dira kontuan:

- Irakaskuntzari atxikitako helburu sozialekin bat etortzea, eta gure gizarteko komunikazioaren oinarrizko alorretan ahozko zein idatzizko hizkuntz adierazpenei erantzutea.

- Zenbait gida-liburu eta ikasketa planetan agertzen diren taldekatzeekiko malgua izatea.

- Taldekatutako generoak antzekoak izatea hizkuntz gaitasunei dagokienez.

Curriculumaren ikuspuntutik, talde bakoitza irakaskuntzako maila guztietan lantzea proposatzen da, aldi bakoitzean genero desberdin batean sakonduz. Honek abantaila hauek ematen ditu:

- Ikasleei idazketara hurbiltzeko bide desberdinak eskaintzen dizkio eta pedagogikoki desberdintzen irakatsi.

- Ikuspuntu didaktiko batetik, taldetan sailkatutako generoen aniztasunak bakoitzaren berezitasunak definitzeko aukera ematen du.

- Psikologigoki, hizkuntz eragiketa asko genero talde bati lotuta daude.

- Helburu sozialei dagokienez, hizkuntz mailako gaitasun desberdinak garatzeko multzokatzen eta lanak zehazten laguntzen du.

Multzo bakoitza lantzeko maila bakoitzean genero konkretu bat sakondu daitekeela esan dugu. 2. taulan Dolzek horren adibidea luzatzen digu aurreko taulako hirugarren taldearen progresioarekin.

Bibliografia:

-Dolz, J. eta Schneuwly, B. "Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona". Textos aldizkaria, 11. zenbakia, 1997ko urtarrila.

1. taula. Genero multzoen proposamena

<i>Komunikazioaren ingurune soziala</i> ELEMENTU TIPOLOGIKOAK Hizkuntz gaitasun nagusiak	Ahozko eta idatzizko generoen adib.
<i>Kultura literarioa</i> KONTATU (narrer, narrar) Ekintzaren mimesia sinesgarriari intriga erantsiz	Ipuin zoragarria Alegia Abenturazko kontakizuna Zientzia-fikziozko kontakizuna Misteriozko kontakizuna Kontakizun mitikoa Sketch edo istorio harrigarria Biografia Eleberria Eleberri historikoa Alegiazko berria Parodia ipuina Asmakizuna Haur-abestia ...
<i>Giza ekintzen dokumentazioa eta memorizazioa</i> KONTATU (relater, relatar) Bizitako esperientzien adierazpena diskurtsoaren bidez eta denboran kokatuta	Bizitzako kontakizunak Bidailetako kontakizunak Norberaren egunerokoa Testigantza Pasadizoa Autobiografia Curriculum vitae ... Gertaerak Erreportaia Munduko kronika Kirol kronika ... Historikoa Kontakizun historikoa Ohar biografikoa Biografia ...
<i>Arazo sozial polemikoen eztabaidak</i> ARGUDIATU Jarrera hartzearen finkatzea, gezurtatzea eta negoziatzea	Iritzi artikulua Argudiozko elkarrizketak Irakurlearentzako gutuna Erreklamazio gutuna Eskaera gutuna Eztabaida informala Eztabaida moderatua Editoriala Errekurtsoa Legezko erreklama Saiakera ...
<i>Jakiteen igorpena eta eraikuntza</i> AZALDU Jakintza modu desberdinen aurkezpen testuala	Testu erakuslea Hitzaldia Artikulu entziklopedikoa Aritu bati elkarrizketa Azalpen testua Ohar-hartzea Testu erakusle eta azalpen testuen laburpena Txosten zientifikoa Esperientzi baten aipua
<i>Argibideak eta eraikuntza</i> EKINTZAK DESKRIBATU Portaeren elkarren arteko arautzea	Muntaia argibideak Errezeta Arautegia Jokoaren arauak Erabilpen modua Agindu desberdinak Iragarpen testuak ...

2. Taula. "Argudiatzearen" arloko sekuentziazio curricularra. Ziklo bakoitzean proposatutako generoak

zikloa	Aukera daitezkeen genero testualen adibideak	Ingurune sozialaren irudikapena	Testuaren egitura diskurtsiboa	Hizkuntz unitateen aukeraketa
1-2	AHOZKOA: -Iritziak eman eta justifikatu -Klaseko eztabaida kolektiboa	-Eguneroko bizitzako egoeren iritzia ematea	-Oinarri minimo batekin ematea iritzia -Ikuspuntuen arteko aldeak mantentzea	-Jarrera adierazpenak erabiltzea iritzia emateko -Kausaren antolatzaileak erabiltzea iritzia sustengatzeko -"Zergatik" galderak egin
3-4	IDATZIA: -Prensa (haur aldizkariak): irakurlearen gutuna AHOZKOA: -Klasearen aurrean iritzia defendatzea	-Galdera eta eztabaida sortu duen gaia birplanteatu -Testuaren hartzailea identifikatu eta kontuan hartu -Argudiozko testu baten asmoa zehaztu -Testua irakurriko den lekua eta momentua kontuan hartu	-Argumentu sorta bat zehaztea egoera zehatz-batetik abiatuta -Aurreko argumentuekin ondorio koherentea osatu -Argudio desberdinak lotu eta ondorioarekin erlazionatu	-Iritzi baten inguruan hartutako jarreraren adierazpenak irudikatu eta erabili, bai aldekoak bai kontrakoak -Zerrendatu antolatzaileak erabili -Argumentu bakoitzeko antolatzaileak ondorioetatik bereiztu -Interpelazioa eta gutunak ixteko formulak erabili.
5-6	IDATZIA: -Prensa (gazteentzako aldizkariak): irakurle baten gutuna -Gutunak: autoritateari zuzendutako erreklamazio gutuna. AHOZKOA: -Eztabaida publiko erregulatua	-Egoera polemikoa irudikatu orokorrean (rol baten bidez) eta bere parametroak aztertu: *Argudiatzailea eta bere rol soziala *Hartzailea eta bere rol soziala *Helburua: konbentzitzea *Testuaren agerpen lekua -Kontrakoen erantzun posibleak aurrikusi	-Gutun ez-ofizial bati forma eman eta bere egitea zaindu.. Ariketa bera egin gutun ofizial batekin -Sarreran eztabaida gaia aurkeztu -Argudioak indartu adibideekin -Kontrako argudioei kontrako iritzia planteatu -Ondorioak eman	-Argudio elementuak erabili argudioak lotzeko eta ondorioak ateratzeko -Iritzi aditzak erabili -Kontrako jarrerak azaltzeko formulak erabili -Adibideak eta esperientzia pertsonalak sartu -Sujetua duen titulua egin
7-8	IDATZIA: -Prensa lokala: irakurle baten gutuna, gutun irekia, kritika-artikulua -Eskara gutuna AHOZKOA: -Argudiozko elkarrizketa -Eztabaida informala	-Testu batean defendatutako jarrerak zehaztu eta ezkutuko egoera polemikoa atera -Besteek sinesten dutena ulertu eta horren arabera jokatu -Testu hartzailearen ezaugarriak aztertu berari egokitzea -Kontrako jarrerari aurre hartu -Bestearen hitzak aipatu -Leku sozialak eta argudiozko generoak bereiztu	-Landutako argudiozko generoari egokitutako testu plana aukeratu -Defendatuko den tesia zehaztu, argudioak osatu eta gaiak multzokatu -Argudioak, ez-argudioak eta kontra-argudioak bereiztu -Argudio mota desberdinak aurrikusi eta lortu nahi den helburuaren arabera hierarkizatu -Gure tesia defendatzen duten beste hitzak erabili -Testua argudio estrategiaren arabera antolatu	-Ezeztatzea, kontrakotasuna eta kontzesioa adierazten duten argudio elementuak erabili -Aditz adierazkorak erabili: neutroak, apreziatzaileak, depreziatzaileak... -Aipuak sartzeko formulak erabili -Argudio norabidearen arabera zalantza, probabilitatea eta ziurtasuna adierazteko bitarteko desberdinak erabili (adberbioak, aditz laguntzaileak, denbora partikularak...) -Adierazpen moduak bereiztu: galdera erretorikoak, galdera motak, harridurazko esaldiak...
8-9	IDATZIA: -Prensa: editoriala -Gutunak: lana eskaerarako gutuna -Publizitatea: publizitate-tartekoa -Saiakera, ideien konposaketa -Errekurtsoa, legezko erreksa	-Hartzaile anitza kontuan izan -Beste baten hitza norberarena bezala hartu -Argudio egoeraren muga instituzionalak definitu -Argudio generoak egoera argumentatiboen arabera sailkatu -Genero ez-argudioen ezaugarriak definitu	-Eztabaidaren objektua mugatu -Generoak eta argudio estrategiak aukeratu -Tesi posibleak definitu -Kontrako jarrerak aurrikusi eta ezeztatu -Kontra-argudioak garatu -Rol sozialaren arabera ikuspuntua hartu eta tonua egokitu -Argudioaren elkarrizketa dimentsioa mantendu testuan -Ezkutuko arazoak bererai	-Loturazko esaldien rol argumentatiboa identifikatu: orduan, horrela, beste aldetik... -Hartzailea inplikatu izenorde pertsonalak erabiliz: ni, gu, zuek... -Idazketarako terminoak erabili -Apreziatzeko terminoak erabili, bai ezkorrak eta bai baikorrak -Konnotazioaz betetako hiztegia erabili -Anafora kontzeptualak erabili -Marka modal desberdinak erabili

Eskoletatik ateratako artzainak

Arantzazuko Artzain-Eskola

Arantzazun eskola berria ireki dute ikasturte honetan: Artzain-eskola. Ez da ohiko eskola ez, artzantzatik bizi nahi duten gazteei eskainitakoa baizik. Euskal Herriko eta inguruko lurraldeetako artzain-eskola bakarra eta lehenengoa da. Hamar ikaslerekin ekin dio bere ibilbideari.

Euskal Herrian aurki dezakegun artzain-eskola bakarra izanik, ez dugu zalantzarik izan bertara hurbildu eta ezagutzeko. Arantzazun topatu dugu Nikolas Segurola, ikasleen arduraduna. Ofizios artzain, bokazio fraile eta hobby bezala bertsolaritza duen gizon honi esker eskolaren nondik norakoak jakin ditugu.

Orain dela urte pare bat sortu omen zen eskola sortzeko ideia, baina hastea kostatu egin zaio. "Artzaintzako eskola baten beharra ikusten zen, baina arazo bat baino gehiago zeuden: nondik atera dirua, nondik hasi, irakasleak bilatu, ikasleak izango ote ziren ere duda zegoen..." dio Nikolasek. "Gainera, orain arte artzainik onenak gurasoekin ikasitakoak izaten zirela uste zen eta ez geunden eskolak izatera ohi-

tuta". Baina, gauzak aldatu egiten dira eta artzantzaren ere bere eragina izan dute aldaketa teknologikoei: ardiak jertzeko makinak sortu dira, genetika aldetik aurrerapen handiak egin dira, haziak jartzeko ere bai...

Honen guztiaren aurrean, eskola sortzeko ideia Eduardo Urarte "Ardiekin" elkarteko buru zenak izan zuen. Elkarrekin hau genetika aldetik hobekuntzak lortzeko elkarrekin delat argitu digu Nikolasek eta Euskal Herriko artzain asko daudela bertan. Artzainak ados zeuden ideiarekin eta Eusko Jaurlaritzaren ere laguntzeko prest agertu zen.

Pausoz-pauso

Idea aurrera eramateko jendea prest

"Hilabeteko hiru aste egoten dira artzainen etxeetan praktikak eginez"

zegoenez, eman beharreko pausoak ematen hasi ziren. Eskola sortzeko eta antolatzeko ardura "Mendikoi" elkarrekin hartu zuen. Eusko Jaurlaritzaren eta Diputazioek daukaten elkarrekin da. Bere egitekoa Europatik datozen diru-laguntzak aprobetxatuz sektore guztiak prestatzeko laguntza ematea da. "Adibidez basozainei, untzizainei, baratzazainei eta abarrei ikastaroak eskaintzen dizkie. Eta artzainen kasuan, eskola" dio Nikolasek.

"Mendikoi"ren asmoa bost ikasle bilatu eta haiekin hastea zen, baina azkenean hamar bildu ziren. Nikolas da beraien tutorea eta ikasle, irakasle eta artzainen arteko harremanen eta lanen arduraduna.

Aste bat eskola, beste hiru artzainekin

Ikasturtea zazpi hilabetekoa da. Azaroaren 10ean hasi ziren eta maiatzaren bukatuko da. Aste bat Arantzazuko gomistegian pasatzen dute klase teoriko-praktikoak jasotzen. "Klase gehienak teorikoak izaten dira, baina tartean gazta egiten, ardiak artifizialki intseminatzen eta abar ikasten dute". Ondorengo hiru asteak, berriz, artzainen etxeetan pasatzen dituzte.

Arantzazun dauden bitartean gai desberdinei buruzko klaseak jasotzen dituzte, besteak beste:

- Elikadura: kanpoko larrea, pensua...

- Artzain-txakurra nola maneiatu.
- Ardiaren ezaugarriak: nondik datorren, zertarako dagoen egokitua, nola zaindu behar den...
- Osasuna: zein gaixotasun dituen, zein sendagai erabili behar den...
- Genetika: aurrerapenak nola erabili.
- Garbitasuna.
- Ekologia.
- Jezteko makinak, zein arazo sor ditzaketen...

Gai hauek lantzeko irakasle asko etortzen dira. "Orain arte 40 inguru pasa dira gutxi gora behera". Gehienak Euskal Herrikoak dira; unibertitateko irakasleak, al baitariak, nekazaritza injineruak, ardiekin lotura duten sindikatu, instituzio eta elkarteetan daudenak eta abar. "Hasieran klaseak euskaraz ematen zituzten baina gero Txileko bi ikasle etorri ziren eta gaztelaniaz hasi ziren".

Klaseetatik at, artzainen etxeetan egoten direla aipatu dugu. Ikasle bakoitzak artzain batekin hiru aste pasatzen ditu artzain bizimodua eta lanak gertutik eta zuzenean ezagutzeko. "Artzain hauek aukeratzeko hasieran artzainen arteko forum bat egin genuen. Artzainik aurreratuenei deitu zitzairen ikasleak beraien etxeetan edukitzeko prest egongo ziratekeen galde-tuz. Denak baikor agertu ziren, praktikak egiteko eta zekitena erakusteko prest". Horrela aukeratu ziren hamar ikasleentzat behar ziren artzainak.

Ikasturte honen ondoren, zer?

Nikolasek dioenez "orain arte oso gustura daude ikasleak eta irakasle zein artzainak ere bai". Baina gustura egoteaz gain, gauzak ikasten ari dira. Askok etxean ikasitako gauzak bada-kizkitez, baina eskolak makinak erabiltzeko, genetika arloko aurrerapenak ezagutzeko eta oro har gauza berriak ikasteko aukera eskaintzen die. Horrez gain, elkarrekiko harremanak lantzeko ere bai. "Nik garrantzi handia ematen diot beraiek elkarrekin biltzeari, ondoren artzain munduan lanean has-tean ere elkarrekin lan egiteko. Orain arte artzain bakoitza bere aldetik ibili izan da, besteekin inolako harremanik eduki gabe. Nik oso positiboa ikusten dut elkartzea eta elkarren berri izatea".

Maiatzean bukatuko dute artzain-eskolako ikasturtea hamar gazteok, baina aurrerantzean jarraipen bat egin-gongo zaiela adierazi digu Nikolasek. Artzaintzaren munduan sartzen badira artzainen forum-eko partaide izango dira eta beharbada atzetik etorriko diren ikasleak beraien etxeetara joango dira praktikak egitera.

Hurrengo urteetan ikasle gehiago izango dituztela pentsatzen dute. Orain arte eskolarik ez zegoen, baina hemendik aurrera erreferentzia bilakatu-tuko da. Frantzian, esaterako, hiruzpa-lau artzain-eskola daude eta ez dute ulertzen eskola horietatik pasa gabe-koak artzain izan daitezkeenik. Hemen horretaraino iritsiko ote gara?

Protagonisten ahotik



Mainer MURUA

18 urteko itsasondoar hau artzain-eskolako neska bakarra da, baina horrek ez du atzera bota. Gogoz eta ilusioz hasi zen eta hala jarraitzen du.

Nolatan pentsatu zenuen artzain-eskolan izena ematea?

Etxean betidanik eduki ditugu ardiak eta niri asko gustatu izan zaizkit. Gustura ibili izan naiz ardiaren artean. Eta aurten Arantzazun artzain-eskola irekitzen zutela jakin nuenean izena ematea erabaki nuen.

Zeren bila etorri zara, zer ikasteko asmotan?

Beno, etxean gauza asko ikasi ditut, baina beti zerbait gehiago ikas daiteke eta halaxe gertatu zait. Gauza berriak topatu ditut hemen. Adibidez, etxean ez daukagu makinarik, baina hemen nolakoak diren ikasi dut.

Zein da gehien gustatzen zai-zun lana?

Ardiekin ibiltzea eta gazta egitea.

Aurten eskolan eta datorren urtean?

Artzain izateko asmoa dut, bai. Ofizioa gustatzen zait.

Ezagutzen al duzu beste neska artzainik?

Ormaiztegi aldean pare bat edo ba omen daude, baina nik ez ditut ezagutzen.





Ekain MURUA

22 urteko arrasatear honen kasua berezia da. Nekazaritza-injineru teknikoa da, iaz bukatu zituen ikasketak eta orain ikasketa amaierako proiektua burutzen ari da.

Zein proiektua da?

Maedi edo albamina izeneko gaitz bati buruzko ikerketa lana egiten ari naiz. Ardiekin edukitzen duten gaitza da eta esnearen bidez igortzen da arditik arkumera.

Orain arte zerbait egin al da gaitz hau ikertzeko?

Bai, artzain batzuk gaixotasun honi aurre egiteko plan bat aurrera eramaten ari dira. Arkumea jaio ahal-amarengandik aldentzen dute eta esne artifizialarekin hazi. Hori ardi eta arkume batzuekin egiten da. Beste batzuk amaren esnearekin hazten dira. Bien arteko konparaketa egitea da ikerketaren muina. Eta horrez gain, artifizialki hazteak dakartzan onurak, balio, errentagarritasun ekonomikoa eta abar aztertzea.

Non ari zara ikerketa hau egiten?


Lehen esan dudan bezala, artzain batzuk lehenagotik hasiak daude hau aztertzen. Horietako bat Legazpiko Juan Jose Aranguren artzaina da eta ni bere etxera joaten naiz.

Zuk egiten dituzun praktikak eta beste ikasleek egiten dituztenak ez dira berdinak, orduan.

Beno, ardiekin egunero egin beharreko lanak berdin-berdin egin behar izaten ditut. Baina horrez gain, azterketak ere bai.

Dena dela, klase teorikoak jasotzera ere joaten zara Arantzazura besteekin batera. Zer eskaintzen dio nekazaritza-injineru tekniko bati artzain-eskolak?

Gauza teorikoak eta praktikoa irakasten dizkigute. Teoria aldetik hainbat gauza aurretik badakizkit eta alde horretatik besteekiko abantaila dut. Baina praktikari dagokionez, ez. Alde hori hobetzeko aukera eskaintzen dit eskolak.



Rafael MARIPAN

Bi mutil hauek Txiletik etorri dira Euskal Herriko artzain-eskolara.

Nolatan etorri zarete Txiletik Arantzazura?

Txileko Nekazaritza-eskolak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren arteko akordio baten ondorioa izan da. Txilen haragitarako ardiak daude batez ere eta orain dela pare bat urte hemendik esnetarako 200 ardi eraman zituzten proba egiteko. Ardiekin batera bi artzain ere joan ziren ardi hauekin nola lan egin erakusteko.



Jorge NAVARRO

Han ilusioz hartu zen ekintza hau. Artzain horietako batek azpiegitura zabala muntatu du eta han gelditzeko asmoa dauka. Baina bestea hona itzuli da. Beraz, artzainak falta ziren Txilen eta horregatik etorri gara gu, ikasteko eta hara bueltatzeko.

Ondoren zuek beste txileta-rreri irakatsiko diezue, orduan.

Bai, hango jendeak ikasi behar du artzantzan, gazta egiten eta abar.

Ez al da erantzukizun handia zuei eman dizuen?

Bai, hala da, baina ikasteko gogoz etorri gara eta oso gustura gaude bai Arantzazun eta baita Arabako artzainekin praktikak egiten ere.

Eta nolatan izan zineten zuek hona etortzeko aukeratuak?

Beno, ni, Jorge, Nekazaritza-eskolan ikasten ari nintzen eta Rafael lanean zebilen. Nire kasuan, ikasketak bukatzen ari nintzen eta praktikak egiteko leku bat behar nuen. Zuzendariak deitu zidan eta espediente ona nuenez hona etortzeko aukera nuela azaldu zidan.

Espero zenutena aurkitu al duzue?

Bai, gauza asko ari gara ikasten. Adibidez, Txilen ahuntzaren eta behiaren gazta egiten dira, eta ez ardiarena. Esnetarako ardiarekin orain ari dira esperimendatzen. Horregatik, hemen ikasten ari garen gauzak oso baliagarriak dira guretzat.

GUTUNAK

Zuen kezka,
iritziak,
desadostasunak,
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

APIRILA



Lan ordu gutxiago, enplegua sortu

Lan ordu gutxiago eta enplegu gehiago sortzearen eskaera irakaskuntzan ere ematen ari da. ELA, EILAS eta LAB sindikatuek postal bat prestatu dute eskaera hori Hezkuntza Sailari luzatzeko. "Gazteengatik...! Gugatik...! Lan ordu gutxiago. Enplegua sortu" leloa duen postalak eskaera hauek biltzen ditu:

- Gela bakoitzaren ratioa eta lan egunaren ordutegia gutxitzea.
 - Kolokazko lana, ordu estrak, azpikontratazioak eta armamentuan gastatzen den dirua kentzea.
- Postalak Oliveri jaunari eta Markotegi jaunari bidali zaizkie.



EILASen VI. Kongresua Lan banaketaren alde



EILAS sindikatuak VI. Kongresua martxoaren 13-15ean ospatu zuen Gasteizen. Hego Euskal Herriko 100 ordezkari hartu zuen parte. Gai desberdinen inguruko erabaki garrantzitsuak hartu ziren bertan:

1- Lan banaketa eta irakaskuntzan lanpostuak sortzearen aldeko politika bultzatzea. Horretarako ordu estrak kentzea, lan jardunaldiaren murrizketa eta konbenioan lan banaketa indarrean jartzea onartu ziren.

Lan orduen murrizketari dagokionez, irakaskuntzan asteko 32 ordu, gehienez zazpi orduko lanaldia eta ikastorduak %10 gutxitzea suposatuko luke. EILASen proposamenak hauek izan da: hiru ikasturte lan egin, bat libratu eta lau urteotan soldataren %80a kobratzea; lau ikasturte lan egin, bat libratu eta %84 kobratzea; edo bost

ikasturte lan egin, bat libratu eta %86 kobratzea.

2- Ekintza sindikalari buruzko egoerari dagokionez, ELA-LABekin batera lan egin beharra ikusi zen, esparru propioa aldarrikatzeko euskal gizarte osoaren interesak aintzat hartuz. Bestalde, ez zen onartu bi sindikatu horiekin "aliantza akritikoa" egitea. EILASen iritziz, beste sindikatuekin ere (CCOO eta UGT) gai bakoitzean batasuna lortzen saiatu behar da.

3- Lan osasunaren arloan prebentziorako ordezkariak aukeratzeko bultzatuko du. Honen helburua langileen hainbat osasun arazo gaixotasun profesional bezala hartzea da.

4- Esparru sozialari begira, bakegintzaren aldeko politika aktiboa aurrera eramateko eta irtenbide demokratikoa bultzatzeko konpromezua hartu zen. 56

ARGITALPENAK

“LITERATURA UNIBERTSALA”

bilduman dira Sterne eta Svevo



Dagoeneko 72 dira “Literatura unibertsala” bilduman argitaratutako liburuak. Azken biak aurkeztu berri diren bidaia liburuak dira. Bata Laurence Sterne-ren Bidaia sentimental Frantzia eta Italian zehar da. Josu Barambonesek itzuli duen liburu hau egilearen bidaietan oinarrituta dago. Baina ez du ikusten eraikuntza ospetsuen deskripziorik egiten, baizik eta bere bizitzan topatzen duen jendearen izaera eta barne zirrarak arakatu.


Bigarren liburu eta bildumako 72.na, Italo Svevoren Bidaia sentimental laburra da. Maite Lopetegi izan da liburu hau itzuli duena. Svevok bere azken urteetan idatzi zuen ipuin luze amaitugabea da. Aghios jaun maitagarriak bere inguruari arretaz so egiten dio eta ikusten duena kontatzen du. Pertsonaia batzuk aurkezten dizki-gu maitasunez betetako modu dibertitu eta ironiko batean.



Ibaizabal argitaletxeak argitaratuak.

FILOSOFIAREN HISTORIA

Aristoteles, Tomas Aquinokoa, Rousseau, Nietzsche, Sartre eta Ortega y Gasset
Oinarrizko Liburutegia
Bilduma
GAIK



Liburu hau LOGSE batxilergoaren asmoak betetzeko prestatu dago. Filosofoen testu-guruak, pentsamenduak eta testuak biltzen dira. Lehendik Bost filosofo handi liburuak argitaratu dago bilduma honetan, eta horrela, oinarrizko liburutegian Platon, Descartes, Kant,

Marx eta Wittgensteinekin batera sei berri hauek ere topa daitezke.

HEMEN GATOZ

15. zenbakia
1998ko apirila

Hernaniko Langile ikastolak “Udaberria 98” izenburupean kaleratu du bere azken zenbakia. Maila guztietako ikasleek egindako lanak biltzen dira oraingoan ere. Modu sinple, ulerterraz eta atseginez irakurtzeko moduko aldizkaria suertatzen da.



IRAULTZEN

31. zenbakia
1998ko martxoa

LAB-Irakaskuntzak kaleratzen duen aldizkariaren azken zenbakia kalean da. Oraingo ale honetan gai nagusia titularrak isladatzen duena da: Lanordu gutxiago, lanpostu gehiago. Irakaskuntzako langile ezberdinen iritziak biltzen dira. Horrez gain, Irakaskuntza Ertainetarako hitzarmena, soldataren gaurkotzea eta euskalduntzea dira besteak beste lantzen diren gaiak.



AGENDA

“Euskal Eskolaren azken 20 urteak” topaketak. **Apirilaren 25ean** Donostiako Costa Vasca hotelean. Félix Marti UNESCOko zuzendaria eta Hizkuntz Gutxituen inguruko gaietan aditua.

- Gipuzkoako 18. Eskolarteko Bertsolari txapelketa. **Apirilaren 30ean** Hernanin. 15.00etan bertso-paper lehiaketa eta ondoren ahozko saioa.

- Eskola Publikoaren festa Donibane-Lohitzunen **maiatzaren 17an** Ikas-Bi elkarteak antolatuta.

LANPOSTUAK

- Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Hautaprotetarako deialdia: arlo honetan lan-legepeko langile finkoaren izaera lortzeko hautaprotetarako deialdia egin da.

Eskabideak hezkuntza ordezkari-tzetan egongo dira interesatuontzat. Aurkezteko epea: apirilaren 4tik 23ra arte, biak barne.

-Itzultzaile lehiaketa publikoa: Literatura Unibertsala bildumako hurrengo liburuak itzultzeko. Argibide gehiago EIZIEn.

Ikastolen Elkarteko V. Jardunaldi Pedagogikoak

Urtero bezala, aurten ere Ikastolen Elkarteak Jardunaldiak antolatu ditu. Iruñean ospatuko dira maiatzean V. Jardunaldi Pedagogiko hauek eta Ebaluazioa izanen da aurten gaia.

Maiatzaren 12, 13, 14 eta 15ean hizlari anitz bilduko dira gai hau jorratzeko:

Maiatzaren 12an

Goizez

- M. Alvarez (Madrilgo komunitateko irakasleak prestatzeko departamenduko burua): “Ebaluazioa Europako hezkuntza sistemetan”.

- P. Sudupe, M. Artetxe (Seaskako teknikariak): “Seaskako hezkuntza proiektuaren esperientzia. Ebaluaziorako oinarria”.

- M. A. Santos (Didaktikako eta eskola antolakuntzako katedraduna): “Kalitateari buruzko diskurtsoaren arriskuak”.

Arratsaldez

- M. Ugalde (KSEeko zuzendaria): “Kalitate osorako Europako gestio ereduaren aplikazioa ikastetxeetan”.

- S. Sarasola (Santo Tomas Lizeoko zuzendaria), J. M. Aizpuru (Laskorain ikastolako zuzendaria), I. Arregi (Aranzadi ikastolako gerentea): “Kalitatearen ezarpena ikastoletan. Esperientzia berri bat. Hobekuntza taldeak. Adierazleak: irakasleen satisfazioa. Gurasoen partaidetzarako bideak”.

Maiatzaren 13an

Goizez

- E. Barberá (Universitat oberta de Catalunya irakaslea): “Eskolan ebaluatzeko karpetak”.

- N. Uriz (Diseinu eta garapen curricularrerako Unitate Teknikoko aholkularia), J. Castiella (Eskola Orientazioaren Unitate Teknikoko burua), A. Sanz (Diseinu eta garapen curricularrerako Unitate Teknikoko burua): “Gaitasun kognitiboen garapen mailaren ebaluzio psikopedagogikorako tresna DBHn”.

- B. Munarriz (EHUko irakaslea): “Programen ebaluazioa”.

Ikerketa taldea: F. Bermejo (Zuhaztiko irakaslea), B. Martinez, F. Basurco eta C. Medrano (EHUko Pedagogia fakultateko irakasleak): “Ebaluazio prozesua unitate didaktiko baten diseinu eta garapenean”.

Arratsaldez

- M. A. Santos (Didaktikako eta eskola antolakuntzako katedraduna): “Afektibi-

tateaz formazioaren ebaluazioa”.

- J. Go-i (EHUko irakaslea eta OSTADAR proiektuko matematika arloko koordinatzailea): “Ebaluazio ikuspegia OSTADAR proiektuan”.

Maiatzaren 14an

Goizez

- A. Villa (Deustuko Unibertsitateko ICEko zuzendaria): “Hobekuntzan oinarritutako irakaslearen ebaluazioa”.

- J. L. Mendiguren (Astileku ikastolako zuzendaria): “Irakasleen ebaluazioa; esperientzia bat”.

- B. Zubiaurre (UPNAko Psikologia eta Pedagogia departamentuko zuzendaria): “Ikastetxeetako eta irakasleen ebaluazioa”.

Arratsaldez

- N. Arregi (Bizkaiko Ikastolen Elkarte-kidea); J. Gómez (Udarregi ikastolako zuzendaria): “Ikastolen ebaluaketa marka: ametsak eta eginak”.

- 1. aretoan: J. M. Goñi “OSTADAR proiektuko ebaluazio ikuspegiaren gauzatea Matematika arloan”

- 2. aretoan: M. Aldasoro “OSTADAR proiektuko ebaluazio ikuspegiaren gauzatea Hizkuntza arloan”.

- 1. aretoan: J. Terés (S. Mitxelena ikastolako zuzendaria), J. Berasategi (S. Mitxelena ikastolako DBHko koordinatzailea), G. Zuluaga (Astileku ikastolako DBHko koordinatzailea): “OSTADAR proiektuko ebaluazio ikuspegiaren gauzatea Natur zientziak arloan”.

- 2. aretoan: Harri Beobide: “OSTADAR proiektuko ebaluazio ikuspegiaren gauzatea Gizarte zientziak arloan”.

Maiatzaren 15ean

Goizez

- A. Jaurrieta (Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuko Zerbitzuak ikustatzeko eta ikuskapen teknikorako zerbitzuko zuzendaria) eta J. M. Villa (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusia).

Gaia: “Ebaluazioa Nafarroako Komunitate Foraleko eta Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Hezkuntza Sistematan”.

- A. Tiana (UNEDeko irakasle titularra): “Ikastetxeetako kanpo ebaluazioa: ahalbideak eta mugak”.

- D. Nevo (Tel Aviveko Unibertsitate): “Irakaslearen azterketa eta ebaluaziotik ikastetxean oinarritutako ebaluaziora: printzipioak, teknikak eta prozedurak”.

Euskal Eskola Publikoa osansuntsu

Martxoaren 29an Bilboko Etxebarria parkean ospatu zen Euskal Eskola Publikoaren VII. festa. "Euskara denona, denok euskaraz! lelopean 130.000 lagun bildu zirela adierazi zuten antolatzaileek. Egun osoan zehar ekitaldi desbedinak bata bestearen atzetik.

Baina ekitaldietan parte hartzeaz gain, jendeak Euskal Eskola Publikoarekiko atxekimendua ere adierazi zuen. Alde honetatik, antolatzaileak oso gustura gelditu dira, Guraso Elkarteak, alegia.

Nahiz eta festaren antolakuntzaren zama handiena Bizkaiko Guraso Elkartearen eraman aurten, Araba eta Gipuzkoako Guraso Elkarteak ere lanean jardun dira. Urtero-urtero herrialdez txandatzeko da, baina hiru elkarteak elkarlanean prestatzen dute festa. Ana Eizagirre Bizkaiko Guraso Elkarteko lehendakariordeak adierazi duenez

hurrengo urtean Euskal Herriko beste lurraldeetako elkarteekin harremanetan jartzeko asmoa dute, festa nazionala bihurtuz.

Aurtengo festa aldarrikapen gune ere izan da. Zentzu honetan,



Guraso Elkarteek Administrazioari diru eta esfortzu gehiago eskatu dizkiote. Europarekin alderatuz, han ematen duten batez bestekoa baino %2a gutxiago ematen omen du Eusko Jaurlaritzak.

Adierazpenak

Festan parte hartu zuen jendetzaaren artean agintari eta ordezkari politikoak ere izan ziren eta bakoitzak bere adierazpenak egin zituen, gainera:

- Inaxio Oliveri kontseilaria: "festak Euskal Eskola Publikoa gero eta sustraituago eta indartsuago dagoela adierazten du".

- Javier Madrazo IUko koordinatzaile orokorra: "Inbertsio eta finantziario gastuek argi erakusten dute Hezkuntza Saila eskola pribatuaren alde egiten ari den apustua".

- Rodolfo Ares, PSE-EE: "Eskola publikoaren helburuak gizon-emakumeak hezteko behar du planteamendu ideologiko guztien gaineratik".

- Angel Mari Elkano: "Eskola publikoa, ikastolekin batera, etorkizuneko euskal eskola nazionalaren pieza da".

Nafarroan ere Euskal Eskola Publikoaren jaia

Nafarroako Euskal Eskola Publikoaren Aldeko III. Jaian martxoaren 28an ospatu zen Iruñean. Sortzen elkarteak antolatutako jaiari jende ugari bildu zen egun osorako prestatu ziren ospakizunetan parte hartzeri.

Nafarroan euskal eskola publikoa gero eta indartsuago dabilen erakusteko asmoz antolatzen da egun hau, eta bere hirugarren edizioan hori erakusteko parada izan du. Estatu osoan eskola publikoa behera egiten ari den bitartean, Nafarroan igoz



doa eta hori D ereduaren matrikulazioa hazten ari delako gertatzen da.

Joera hau azken bost urtetako den arren, Nafarroako Gobernuak ez dirudi hori ikusten duenik edo errekonozitu nahi duenik. Zeren aurtengo matrikulazio kanpaina ez baitu D ereduaren aldeko kanpainarik eginen.

Hala ere, gizarteak argi erakusten du D ereduaren aldeko apustua egin nahi duela. Sortzenek ere badaki hori eta jaiaren ondoren ere horren alde lanean jarraituko du.

Gazteen Antzerki Topaketa

Martxoaren 30ean hasi ziren aurtentzen Gazteen Antzerki Topaketak Donostian. Maiatzaren 5era arte ikastetxe desberdinetako taldeek beraien lana taularatuko dute. Aurtengoa 10. topaketa da eta ikastetxe hauek dira partehartzaileak: Peñaflores institutua, Usandizaga institutua, Oreretako Antzerki Eskola, Manteo IEE, Agustin Iturriagoa institutua, Axular Lizeoa, ISSA, Zuzenbide Fakultateko Decable taldea, Easo institutu politeknikoa, Karmelo ikastetxea, La Salle ikastetxea, Eskibel ikastetxea, Zurriola ikastola, Bidebieta institutua, Santo Tomas Lizeoa, Ikastetxe Alemana eta Deustuko Unibertsitatea.

Guztira 20 antzezlan dira Donostiako antzoki eta kultur etxeetan ikusi ahal direnak. Horietatik 13 gaztelaniaz eta 7 euskaraz. Estolda gaineko lehen esperientzia izango da batzuentzat. Zorte on!

Gutunak

Arizko Ikastolak iritzi publikoari

Martxoaren 24an "El Pais" egunkariak euskal irakaskuntzari berriro ere eraso zion, eta oraingoan Basauriko Ariz ikastetxe publikoa izan da erasotua. Martxoaren 15ean Senideak gimnasioa utzi zion ikastetxeak ekitaldi baterako eta horrek sortu du iskanbila. Hori dela eta, egunkarietan mota guztietako titularrak eta informazioa agertu dira. Ariz ikastolak martxoaren 27an prentsaurrekoa eman zuten gauzak argitzeko. Albiste honek, ordea, ez du hainbeste oihartzunik izan, eta hauen ahotsak ere bere lekua behar duela iruditzen zaigu. Horrela bada, hona hemen Arizko ikastetxe publikoko Asanblada Orokorraren adierazpenak:

1.- Arizko Ikastolak benetan sentitzen du azken bolada honetan komunikabideetan azaldu diren informazioek gure eskola komunitatean sortu duten egonezina.

2.- Arizko Ikastolak zalantzarik gabe baieztatu dezake gimnasioa erabiltzeko Senideak eman dion baimenak detaile guztietan jarraitu duela ohiko prozedura, zeina herriko beste zenbait talderi (Pozokoetxeko Jubilatua, AEK Bolintxu euskaltegia...) baimena ematean ere jarraitu den. Are gehiago, iazko abenduaren 17ko dataz, Udalak eskatuta, gure egoitza erabiltzen zuten taldeen izenak eta ordutegiak jakinarazi genizkion, geroztik gure jokaerari buruzko inolako irregulartasunen berri jaso ez dugularik.

3.- Arizko Ikastolak indarrez gaitzesten du zenbait sektorek gure ikasleak, gurasoak eta irakasleak arbuizatzeko den zerbaitekin identifikatzeko erakutsi duten interesa:

a) Gimnasioa erabiltzeko baimena larunbat arratsalde/gauerako izan zen, hau da, ikastolarekin zerikusi zuzena duten jarduera pedagogiko

edo eskolaz kanpoko ekintzarik ez dagoenean.

b) Erabilitako lekua ikasgelak, material pedagogiko edo administrazio bulegoak dauden egoitzatik guztiz aparte dago.

4.- Salaketa gogorra egin nahi dugu zenbait komunikabidek, aurrezagoko beste kasu batzuetan egin duten bidea jarraituz, gertaera honi eman dioten trataeratik, zeren eta, informatu nahia baino, argi utzi baitute gure komunitateari mina ematea zutela helburu.

5.- Bizkaiko Lurraldeko Hezkuntzako Ordezkarria den Maite Garmendiak zabaldu duen ezkutuko informazioaren aurrean, Arizko Ikastolako zuzendaritzarekin bat egiten dugula.

6.- Eraikin hauetara aldatu ginetik nozitzen ari garen etengabeko jazarpenaren azken ukitua izan da oraingo hau: lapurretak eta ondorengo salaketak, pintada iraingarriak, oinarri gabeko gure aurkako salaketak, desprestigiatzeko kanpainak eta abar luzea. Baina hau dena ahaztu egin behar dugu gure helburu funtsezkoena lortzen jarraitzeko: **kalitatezko irakaskuntza euskalduna.**

Azkenik, argi utzi nahi dugu Arizko Ikastola muntaia guzti honen biktima inpotentea sentitzen dela ezer baino gehiago, baina lasai, eskuak garbi dituela konbentziturik dagoelako. Basauriko herriak ondo daki 30 urteetan egindako gure lanak emaitza onak eta eskertuak izan dituela, bere eskuetatik ideologia desberdinetako familien seme-alabak pasatu direla, eta inoiz ez digutela oraingo honetan egin zaizkigun salaketen moduko kezarik aurkeztu. Beti jardun dugu eta jardungo dugu IRAKASKUNTZA EUSKARAZ garatzen.

Suediako Haur Zerbitzuak eta Eskolak ezagutzen



Izaskun MADARIAGA IRAGORRI
HAUR ESKOLAKO IRAKASLEA

Iazko maiatzean eta Infancia aldizkariak antolatutako bidaiaren bitartez, Suedian haur ttikientzat dauden eskola/zerbitzuak ezagutzeko aukera izan genuen. Bisita bi lurralde oso ezberdinetan burutu zen. Alde batetik Lulea izeneko herrian -Laponiatik gertu dagoen lurraldean kokatzen dena- eta bestetik Stockholm hiriburuan, biak itsasertzekoak.

Lehen azalpen batean eskolatik kanpo dauden zerbitzu guztiak azalduko baditut ere, hiru zerbitzu motak ezagutzeko parada izan genuen: hemengo haur-eskola pareko zerbitzuak, Daghem izenez ezagutzen direnak; kolektibitatean hezitzen ez diren haurrentzat dauden Öppen förskola izeneko zerbitzuak eta azkenik, gauzez ere irekitzen diren zerbitzuak.

Testuingurua

Suedian eskolatzeko derrigortasuna 7 urterekin hasten da. Dena den, 1993an onartutako legearen ondorioz, haurrak 6 urterekin eskolatu ahal dira gurasoek horrela nahi eta plazak izanez

gero. 1995eko legediaren arabera langile¹ edo ikasle diren guraso guztiak dute plaza bat izateko eskubidea (baldin eta haurra 1-12 urte bitartekoa bada) diru publikoarekin finantzatzen diren zentroetan.

Diru publikoarekin finantzatzen diren 7 urtetik beherako haur-zerbitzuak Ongizate Zerbitzu Sistemaren menpe aurkitzen dira (momentu honetan Hezkuntzara pasatzeko ahaleginean ari dira, Stockholmon esperientzi bat egiten ari direlarik). Sistema berdinen menpe aurkitzen dira, baita ere, eskolatuak dauden haurrentzako denbora libre eta aisialdi zerbitzuak, eta hezkuntzarekin gertatzen den



¹ 1994an 20-64 urte bitarteko emakumeen artean %80ak egiten zuen lan etxetik kanpoko lanbide ordainduetan. Garai berdinean gizonezkoak %84 ziren.

bezala, diru publikoa jasotzen duten zerbitzu hoiek guztiak Udalen konpetentziakoak dira. 1993. urtean Udalen zuzendaritzapean zeudenak %88ra iristen ziren.

Suedia kulturaunitzeko gizarte bihurtu da azken denboraldi honetan. Etorriak direla eta, 140 hizkuntza baino gehiago hitz egiten da. Zerbitzuak erabiltzen dituzten haurretatik %12a suediera hitz egiten ez duten etnia gutxiagotuen familiakoak izanik.

Hezkuntza sistematik kanpo era ezberdineko zerbitzuak daude:

1) Daghem: 0-7 urteko haurrentzat dira. Zentro hauek egun osoko zerbitzua eskaintzen dute eta urte guztian daude irekita. 50 edo 60 haurrentzako modukoak izaten dira.

2) Deltidsgrupp: 4-7 urte bitartekoentzat dira, nahiz eta haur gehienak 6 urtekoak izan. Zentro hauek eskola garaian bakarrik daude irekita eta haurrak egun erdiz egoten dira. Goizean eta arratsaldean talde ezberdinak hartzen dira, talde bakoitza 20 bat hurrek osatzen dutelarik.

3) Familjedaghem: familia atentziarako langileak deritzanak dira. Pertsona batek 4-8 haur har ditzake nahiz eta egun erdiko kasutan 10-12 izatera irits daiteke. Zerbitzu hau sistema



antolatua da eta urte guztian funtzionatzen duena.

4) Sexarsverksamhet: 6 urteko haurrentzako eskolaurrea. Daghem zentroetarako pentsatua bazegoen ere, gehienetan eskoletan eskaintzen da zerbitzu hau, astean 15 orduz eskola garaiak irauten duen bitartean.

5) Fritidshem: 7-12 urte bitarteko haurrentzako denbora libre eta aisialdi zerbitzua da. Eskolarekiko independentzia du eta urte guztian egun osoko zerbitzua eskaintzen du.

6) Integrerad skola och fritidshem: aurrekoa bezala aisialdi zerbitzua da,

baina eskola garaian eta eskola ordutan egiten da. Irakasleekin koordinatutako programak eramaten dira aurrera eta bertan parte hartzen duten haurrak 7-10 urte bitartekoak dira.

7) Öppen förskola: hauek "ate irekiak" izeneko zentroak dira. Gehienetan astean 15 orduko eskaintza egiten dute, astean egun bat eta bost egun bitartean egoten direlarik irekiak. Zentro hauek gurasoekin nahiz familia atentzioko (Familjedaghem) zerbitzukoekin egoten diren haurrentzat pentsatuta daude. Helburua haurrei esparru sozialak zabaltzea eta jolasleku aproposak eskaintzea da. Gidaritza begirale baten esku dago eta bere eginkizuna dinamizatzaile izatea da, bai aktibitateak proposatzeko eta baita helduei laguntza eskaintzeko ere.

DAGHEM zentroak

Jaiotzetako unetik 7 urte bitarteko haurrentzako zentroak baldin badira ere, haur guztiak urte t'erditik aurrera hasten direla esan behar da, amatasunbajak denbora hori irauten duelako. Bestalde, gero eta gehiago dira 6 urterekin eskolatzen direnak.

Zentro hauen egitura oso berezia da. Ez dute gure ikastetxetan bezala adin bakoitzerako gela bat, baizik eta moduloka daude antolatuak. "Sibling groups" edo lagun-talde izenez ezagu-



tzen den taldekatze modu hau 70-80 hamarkadan hasi zen ezartzen. Hasiera batean 7 urte arteko adin ezberdinekoak elkartzen zituzten (Lulean guztiak ziren horrelakoak), baina gaur egun (Stockholmon adibidez) batzuk zati-tzen hasiak dira: 1-3 urtekoak alde batetik eta 3-6/7koak bestetik.

Moduluaren banaketak etxearen antzeko izan nahi du, bere sukalde, komun eta geleskin. Gela bakoitza tailer bat da: materialduna sinbolikoa lantzeko, psikomotrizitatea lantzeko, aroztegi bezala prestatua dagoena, garbiketarako egiteko komuna, sukaldea (bazkaldu, sukalde-lanetan aritu edota margotegi bezala erabiltzen dena), logelak eta abar. Badago gela bat haurrak bakarrik egoteko, beren ardurapean, irakaslerik gabe, eta beste gela bat irakasleen atsedenaldirako.

Modulu ezberdinez osatzen da gune bat, zentro bat (gehienez 4-6 modulu). Bakoitzak bere ezaugarri edo izena du, independentea da, baina jantziak prestatzeko sukaldea eta kanpoko espazioa amankomunak dituzte.

Ratioa: Taldea (1-7 urtekoak baldin badira) guztira 15 hurrek osatzen dute, hauekin hiru irakasle egoten direlarik. Ratioa ona iruditu bazitzaigun ere, beraiek kexu ziren azken boladan egoera okertu egin zitzaielako.

Stockholmoko zentroetan, berriz, egoera ezberdina zen: 1-3 urteko taldeetan eta 15 hurrekin hiru irakasle egoten dira, 40, 35 eta 20 orduko lanorduekin eta 3-6 urteko taldeetan, berriz, hiru irakasle 21 haurrentzat. Hauen lanordua zabalagoa da: 40, 40 eta 35 ordukoa.

Bi irakasle mota daude: hezitzaileak eta laguntzaileak. Formazio maila ezberdina da, nahiz eta bien kasuan hiru urtekoa izan.

Zerbitzua goizeko 7,30etatik arratsaldeko 5,30etara dago irekia kasu gehienetan. Ikasturtea abuztuan hasten da.



“Hezkuntza sistematik kanpo era ezberdinetako zerbitzuak daude”

Lulean 24 orduz irekitzen zuten hiru zentro zeuden. Zentro hauek, gainera, urteko egun guztietan irekitzen dute, igande eta guzti. Stockholmon ez genuen bat bakarra ezagutu.

Finantziaketa iturriak hiru dira: Gobernu zentrala, lekuko gobernua eta gurasoak. (1993. urtean %35, %52 eta %13 izan zen bakoitzaren kopurua, azken hau gero eta gehiago igotzen ari delarik).

Pedagogia arloan, definizio nagusietan batez ere, gurearen parekoak ziren, baina egiteko eran gauza bitxiak topatu genituen. Alde batetik naturarekin

duten harremana. Lulean esaterako, hain lurralde hotza izanik ere, kalean bizitzeari garrantzi handia ematen zioten, naturaren ezagutzari, errespetuari... -15º baino hotz gehiago ez zen bitartean, haur guztiak kalean ibiltzen ziren. Ttikienak, gainera, kalean egiten zuten lo, beraien kapazuetan sarturik. Jokabide honek, dena den, osasun prebentzioarekin zerikusi zuzena zuen, geroago konturatu ginen bezela.²

Erabiltzen ziren materialak ere deigarriak suertatu zitzaizkigun. Benetako eta bizitza normaleko tresna asko haurren esku zeuden, bai kalean erabiltzeko (horko arrastelu, pala eta elurra garbitzeko tresneria!) eta baita eskola barruan ere, aroztegiaren kasua oso nabarmena zelarik (egurra da Suedian material erabileena). Mahaiak altuera normalekoak ziren, haurrak helduen altuera berdinerako egokitzen zituzten horretarako aulki aproposak erabiliz, eta ez alderantziz, gure eskolatan egiten dugun bezala.³

Stockholmon Italiako Regioko pedagogia aplikatzen hasiak ziren esperientzia gisara. Lulean, aldiz, beraien betiko sistemarekin jarraitzen zuten, ezberdina erabat, baina definitzera ausartzen ez naizena, besteak beste, bisitaldi batekin dena ezagutzea oso zaila delako. Baina bazegoen bi lurraldeetan antzematen zen gauza bat: han-

² Lulean asmatikoentzako zentro berezi bat topatu genuen. Beraien esanetan etxe barruan ordu gehiegi egiten zituzten haurrak, moketa eta berogailuak oso kaltegarri suertatuz. Badirudi arazoa nahiko orokorra dela, hori pentsatu genuen behintzat, liburutegi batean ipuinak ikusterakoan asmatikoek egoerak azaltzen zituzten ipuinekin topo egin baitgenuen.

³ Azaldutako testuinguruan interpretazio hau eman genion mahai altuak erabiltzeko baina bazegoen beste konstante bat ere, hau da, irakasleen nekea babestearena. Eskola sarreretan halako “podium” antzekoak zeuden, haurrak hara igo eta arropak jantzi/erantzeko, irakaslea makurtzen ibili gabe. Pardelak aldatzeko mahaiak ere sistema hidrauliko baten bidez egokitzen ziren beharrezko altuerara, eskailera batzuen bitartez haurra bertara igoz.



go haurrak gureak baino “nini” ago kontsideratzea adin berdinak aldeniduz gero. Bi detaile besterik ez ditut. Bata, ttikiak kapazuan sarturik eta besoetan ematen zuten denbora eta baita besoetan ere, gutxienez urte t’erdi dituzte... Gure haurrak adin honetan beste jokabide batekin azaltzen dira. Beste detaileak esfinterren kontrola lantzeko adina. Guk 2 urte inguruan lantzen dugun edukia bada ere, haiek 3 urterekin hasten ziren.

24 orduko zerbitzuak

Gaueko zerbitzua eskaintzen da zentro hauetan. Bertara joateko familiarren beharra justifikatu behar da. Arduradunek ziotenez haur gutxi joaten dira (egunero 6-7 eta asteburutan 10-12)⁴ eta han ikusi genituen haurrak etorkin nabarmenak ziren guztiak eta anai-arrebak zirenak ere ugari zeuden.

Lotara joaten diren hurrek ez dute egunez zentro horretan egon beharrik, herri guztiko beharrak hartzen baitituzte. Adinean ere 10-12 urte bitartekoak onartzen dira.

Baldintza zehatz bat badago: haurrak ezin dira lotarako bakarria eraman, hau da, gutxienez 2 ordu lehenago eta 2 beranduago arte egon behar dute bertan, talde bizitza minimo bat bermatzearen.

Pertsonalaren aldetik, egunez lan egiten duten sei hezitzaile txandakatzten dira gauerako. Hauekin batera beste bi berezi egoten dira.

Öppen Förskola

Zentro hauek irekiak dira, hau da, nahi duten haurrak joan litezke eta nahi duten denboraz (guk bisitatu genuenaren kasuan, 5.600 pertsona pasatzera iritsi zen 1995. urtean), baina beraien guraso edo arduradunarekin. Ezin dira bakarrik gelditu. Dohaneokak dira.

Zerbitzu mota hoiak 1972an sortu ziren “Daghem” izeneko zentroak eskaera guztia bete ezin zuela eta.⁵

Zerbitzuzugunetik gertu kokatzen dira. Bi ordutegi dituzte: goizekoa (8.00-11.45) eta arratsaldekoa (13.00-16.15). Arduradun bat dago egunero ko aktibitateak prestatu eta gune egozia antolatzen duena. Ez du bere gain hartzen haurraren erantzunkizuna,

“Gauza batzuk inbidia-garriak dira, baina ez guztiak”

ezta istiluak egoten direnean ere. Ardura hori haurrarekin etortzen denarena da.

Astean behin pediatarren zerbitzua eskaintzen da.

Helburu zehatzak dituzte: alde batek haurrei haurrekin elkartzeko eta ikasteko aukera eskaintzea eta esparru sozial berriak ezagutaraztea. Beste aldetik, helduei ere topagune bat eskaintzea isolamendu soziala gainditzearen. Guraso eskola izatea ere helburuen artean dago, interesa duten ekitaldien berri ematen zaielarik. Egunero kafea hartuz esertzen dira beraien harremanak sendotzeko. Honetaz gain, badago haurdunaldiko zerbitzu berezia, hamabostero emaginaren kontrola eskainiz.

Hezitzaileak: hauek bakarrik egiten dute lana. Bapatekotasun handia ematen da, ez baitakite zenbat haur/guraso etorriko diren. Hilabetean behin beste hezitzaileekin elkartzen dira elkar koordinatzeko. Erantzunkizuna pertsonala da erabat. Bakoitzaren baitan dago zerbitzuaren arrakasta lortzea, horretarako ahalegin guztiak jartzen dituztelarik. Lanpostua lehiaketaren bitartez lortzen dute eta Administrazioako kontrolak oso hestua izaten dira, batez ere erabilpenaren inguruan. Baja hartu behar izanez gero, zentroa itxita gelditzen da, ordezkapenik ez baitute izaten. Bertako irakasle batek zioenez, stressa eta antzeko arazoak nahiko arruntak izaten dira. Horregatik, hilabetero ordu t’erdiko zerbitzu psikologikoa eskaintzen die administrazioak.

Hauxe bada bertan ezagututakoa. Gauza batzuek inbidia-garriak dira baina ez guztiak, ikusten duzuen bezala. Hala ere, Suediako gizartean haurra oso present dagoen zerbait dela iruditzen zait, beharbada hemen baino “pertsonajeagoa”. Bukatzeko, hemen inoiz ikusi ez ditudan bi detaile bitxi: bata, taberna guztietan haurrentzako “tronak” zeudela helduen aulkiekin batera, eta bestea, elizetan balioak adierazten zituzten ipuinak zeudela helduen liburuen artean.

⁴ Luleak 70.000 biztanle ditu baina inguruko herriak kontuan hartuta 210.000ra iristen da. Eskualdeko zabalera 9.000 km²koa da.

⁵ Gaur egungo legearekin, 5 urte baino gutxiagoko haurra izan eta beste bat jaiotzen bada, zaharrenaren plaza galdu daiteke amatasun bajak iraun bitartean.

Zer da eskultura? (II)

Batasun didaktikoa

Imanol Agirre Arriaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea
Psikologia eta Pedagogia Departamentua



A

urreko alean eskulturaren gaiari hasiera eman bage-nion, oraingoan jarraipena dator. Hiru dimentsiotako arte hau lantzeko helburuak, edukiak, hiztegia, materialak eta garapena azaldu genituen. Oraingoan eskultura lantzeko eta ekoizteko proiektu desberdinak proposatzen dira.

Batasun didaktiko honen inguruan landu daitezkeen proiektuen iradokizuna (Ekoizpenaren atala)

Ekoizpen lanetarako abiapuntua eskulturak gure gizartearen eta beste

gizarteetan betetzen dituen funtzioen azterketa izan daiteke. Badakigu oso zaila dela zenbait eskulturetan funtzio hauen arteko mugak ezartzea. Ibarrolaren artelanetan, adibidez, ezin da garbi bereizi non hasten den funtzio sinbolikoa eta non bukatzen den arazo formal baten inguruko lana. Artista berak sarritan argitzen digu zalantza hau, baina, garrantzizkoena, gure ustez, ez da artistak bere obrari buruz pentsatzen duena ikastea. Hau jakitea komenigarria bada, askoz ere garrantzitsuagoa iruditzen zaizkigu ikasle-irakasleen arteko harremanean sortzen diren esperientziak, eskulturak bizitzeko erak eta sentipenak. Hauek dira jorratu beharrekoak eta hauek dira gero haurren lanetan agertu edo aplikatu behar direnak.

Era berean zera jakin arazi behar dizuegu: atal honetan artea zer den eta zer ez den (non bukatzen diren artistizitatearen mugak) ezinbestekoz agertuko den arazoari ere heldu beharko diozuela. Adituak, honi buruz, azken hitza eman gabe baldin badaude, ez behartu gehiegi zeuen burua honetara. Ez da gaia saihestu behar, noski. Baina kontuan izan beharko dugu, gure irudipen pertsonaletik harantzago, arte instituzioek (kritikariak, artistak, galeristak, bilduma egileak, museoak, arte teorikoak eta abar) erabakitzen dutela zer den eta zer ez den artea. Eta era horretako instituzioak ez zeudenean ere bazeudela beste batzuk lan bera eginez.

Eragozpen hauek behar bezala gaindituko dituzuelakoan, beste ohar bat:



proiektu hauetan oso garrantzizkoak dira arestian aipatutako koaderno eta portafolioak. Horiek dira haurren aurrerapenen lekuko eta han ikusiko ditugu, inolako zalantzarik gabe, haurren pentsamoldeen garapena nondik nora doan, eta zer eta nola ikasten ari diren. Ez ahaztu, hortaz, proposamenak eta aginduak egiterakoan koaderno eta portafolioaren erabilpenari buruz ere zerbait azaltzea.

1go Proiektua

Proposamena: Haurrek taldeka (lau pertsona talde bakoitzean, gehiago ez) objektu arrunt bati itxura artistiko bat eman diezaioten eskatuko diegu. Abiapuntu edo adibide gisa Andrés Nagelen eskultura edo Picassorena oso aproposak izan daitezke. Haurrek etxetik oso handia ez den traste zahar bat (jostailu bat izan daiteke) ekarriko dute eta bere itxura aldatuko dute kartulinak, egurrak, zapiak edo beste materialak itsasiz. Horretarako, moztu eta itsasten hasi baino lehen, dituzten ideiak marraztu eta komentatuko dituzte beraien artean eta irakaslearekin, proiektu bat osatuz. Honek ez du esan nahi, gero, objektua egiten ari direnean proiektatutakoa aldatu ezin denik. Hala ere, proiektatzearen pauso guztiak eta aldaketak behar bezala agertuko dira koaderno eta portafolioetan.

Helburuak: Eskulturaren funtzio utilitarioaz jabetu. Egunerokotasunaren ingurune arruntean gauzen balio-garritasun estetikoaz pentsa eta ohar-tarazi haurrei. Zenbait trebetasun plastiko eta prozedurazkoak landu (itsasi, koloreztatueta abar).

Materialak: Edozein traste zahar, papera, kartoia, tableroa, margoa, itsaskaria eta abar.

2. Proiektua

Proposamena: Buztinarekin zuloz eta hutsunez osatutako eskultura bat eraikiko dute (binaka). Hau kokatzeko herriko paraje bat aukeratu eta proiektu txiki bat egingo dute, DIN A-3 neurriko muntaia eginez.

Helburuak: Eskulturaren apaing-



rritasunaz aritzea proposatzen da, besteak beste. Baina aldez aurretik eta irudimena erabiliz, proiektatzen jarduteko ohitura ere piztu nahi dugu haurrengan.

Prozeduren aldetik bi fase bereizi behar ditugu proiektu honetan:

1) Modelaketaren lana (ez derrigorez egin behar den lehenengoa)

2) Argazki makina baten bidez eta fotokopien bidez eskulturarentzat aukeratutako eskenatokiari argazkia egin, gero eskulturaren argazkia (neurria egokituz) kokatzeko.

Kontua da haurrek hautatutako parajearen argazkia (egutegi edo postal batetik ateratakoa ere izan daiteke) fotokopiagailuaren bitartez DIN A-4 neurrian jarri eta toki hura kontuan harturik, paraje hartarako eskultura bat pentsatu eta egitea.

Behin eskulturaren maketa (20-60 cm bitartekoa) egin ondoren, argazkiak egingo dizkiogu honi eta DIN A-4an daukagun paisaia kokatuko dugu, aukera eta bista guztiak aztertuz. Gero, nahi izanez gero, DIN A-3 formatora pasa daiteke.

Ariketa honetan, garrantzizkoena ez da fotokopien kalitatea (gutxiengo bat betetzearekin nahikoa litzateke), proiektzioak sortzen dituen arazoak baizik: kokapena, tokiaren hautaketa, eskala eta proportzioak eta abar.



3. Proiektua

Helburua: Proiektu honen bidez eskulturak ukan dezakeen funtzio simbolikoa azpimarratuko dugu, balore ezberdinen eramale eta adierazle bezala.

Lehenengoz, orduan, hurrei ondo ulertarazi ahal izango zaie zein eta nolakoa den artearen erabilpen simbolikoa. Horretarako hemen aurkeztutako artisten lanetan oinarritu zaitezke alde hauek aztertzeko. Hilarriak, Migel Angelen Davidek edo Delfoseko kariatideak simbolizazio mota ezberdinen aurkezpenerako oso aukera ona emango dizuete.

Ariketaren xedea ulergarriagoa izan dadin eta beraien bizitzatik gertuago ikus dezaten, aldizkarietatik zenbait objektuen irudiak (ez eskulturak derrigorrez) aukeratu eta moztuko dituzte baldintza honen pean: boterea, indarra, energia, dinamismoa, babes, prestijioa, zoria edo antzekoak izango dira irudi horien bilketan kontuan hartuko dituzten baloreak.


Proposamena: Prestakuntza lan hauek bukatu ondoren, auto baten sin-

boloa izango den logotipoa diseinatzea eskatuko diegu, beraien ustez auto horrek izan beharkeko lituzkeen baloreak kontuan hartuz (autoaren ordez kolonia pote bat edo giza baloreen adierazgarri den beste edozein gauza izan daiteke).

Diseinua edozein material eta teknikaren bidez egin daiteke. Baina edozein publizitate etxeko sortzaileak izango balira bezala, beraien diseinua aurkeztu beharke dute, autoaren irudiekin eta testu adierazlearekin batera foileto edo poster baten bitartez, collagen teknika erabiliz.

Materiala: Diseinuaren arabera: papera, buztina, paper maché, kartoia, eta abar.

Aurkezpenerako argazki makina eta ordenagailuko konposaketa programa




bat lagungarri izan daiteke, derrigorrezkoa ez baldin bada ere.

4. Proiektua

Helburua: Proiektu honen bidez zenbait trebetasun eta prozedura lantzea proposatzen dizuegu bereziki: moztu, itsatsi eta koloreztatu eta trebetasunak eraiki.

Proposamena: Naum Gabok edo Picassok egiten duten bezala eskulturak zatika-zatika objektu eta material oso arruntak erabiliz eraiki daitezke. Proiektu honetan gaia librea izango da eta jarriko dugun baldintza bakarra eraikuntza prozesuaren bidez egin beharrekoa izango da¹. Lehenago esan dugun bezala, hurrek proiektatutako eta pentsatutako guztiaren erregistroa gordeko dute koaderno eta portafolioetan.

Materialak: Itsaskin beroa erabiltzen duten aplikatzaileak (pistola), itsaskin beroko ziriak, guraizeak, tenpera edo argizarizko margoak, kartoia, egurrak eta birzikatutako edozein material.



¹Material ezberdinak behar bezala itsasteko eta zerbait sendoa egiteko, oso aproposan dira (eta merkeak) itsaskin ziriak berotu eta urtutzen dituzten pistola antzeko tresna elektriko batzuk. Itsaskina urtuta ezarri eta hozten den heinean gogortu egiten da edozein gauza edozein eratarantz itsatsiz. Tresnaren muturrak oso tenperatura handia hartzen du eta kontuan haxe izan beharke duzue haurren eskuetan utzi ala ez erabakitzerakoan. Badakigu gauza hauekin gero eta arazo gehiago dagoela. baina behar bezala ibiliz gero ez da hurrek egunero erabiltzen duten beste edozein tresna baino arriskugarriagoa eta lanerako emango digun askatasuna eta emankortasuna ere, kontuan hartzekoak dira.



5. Proiektua

Proposamena: Oraingo honetan eskultura izango da abiapuntua, baina ez dira eskulturak izango haurrek egin beharko dituztenak. Hilarriaren irudia (edo irudiak) ikusi ondoren, haurrek marrazki geometrikoen bidez diseinatuko dute horietako hilarriren bat. Haur gaztetxo-entzat diseinu geometriko hitzak bel-durgarriak bilaka ez daitezzen, laukiz, trianguluz edota borobilez mintzatuko gatzai. Holakoetan ez diogu txukuntasunari (lerroen zehaztasunari, alegia) arreta gehiegirik jarriko. Diseinua beraren formalizapena izango da gure ardura nagusia. Agian koloreztatzea proposatuko dizuete. Gure ustez, askatasun osoa eman diezaiokezue kasu honetan, baina oso probetxugarria izan daiteke horrelako eskakizun bat (aterako balitz) diseinu, objektu eta funtzioaren arabera koloreak izan dezakeen egokitasunaz mintzatzeko.

Materialak: Kartoia, tableroa, kartulina, arkatzak, konpasak, erregelak, errotulagailuak eta abar.

Ebaluaketarako zenbait eredu

Hain lan zabala planteatu ondoren eman behar diren ereduak, derrigorez, oso orokorrak izan behar dute.


Lehenago aurreratu dugun bezala, ebaluaketarako izango dugun tresnarik baliagarriena koaderno eta portafolioa izango dira. Honek emango digu behaketa zuzenetik egindako ebaluaketa intuitiboari falta zaion elementu osagarria.

Zer esanik ez dago, prozesuak ebaluatu beharko ditugu, ez soilik azkeneko lanak, nahiz eta hauek ere bere garrantzia izan.

Taldeka lan eginez gero, ez zaigu oso zaila izango "tailerretako ebaluaketa formatiboaren" modalitate hori praktikatzea. Wilson-ek bere ebaluaketa artistikoari buruzko saio famatuan zioenez, hauxe da tailerretan irakasleak egiten duena ikasleari zerbait gaizki egiten ikusi eta zuzentzen dionean.

Zenbait kasutan begiratzeaz gain, kontuan izan beharko dugu emandako ereduak errespetatzen diren ala ez, helburuak zer neurritan lortzen diren eta desbiderapenak norainoko interesgarritasuna izan duten.

Ikasleek zerbait esan beharko dute bere lan prozesu luze eta trinkoei buruz. Ahal den neurrian entzutea eta ebaluaketari beraien iritzia gehitzea ez litzateke modaren kontu bakar bat izan behar.



HIRU LIBURU GOMENDAGARRI



Gilbortzio eta Argaltzio bi errege oso berezi dira: lehenengoa upela baino gizenagoa, eta bigarrena josteko haria bezain argala...



Zazpi urteko neskatila baten liburu batetik ihes egindako krokodilo baten eta ikastolan jaiotako oilo baten komeriak.



Erromes baten koadernoan aurkitutako ipuin eta poemak.



SAILA

12 URTETIK AURRERA

3. Pol eta Puy.
7. Nikobobino.
15. Franze.
16. Hegoamerikako ipuinak.
18. Gulliver Liliputen.
20. Nikolas txikiren oporrak.
24. Zentzu bakarreko kalearen ipuina.
25. Astakiloak jo eta jo.
27. Lore erradioaktiboak.
28. Nikolas txiki eta bere lagunak.
31. Nikolas txikiren errekreoak.
32. Gautxoriak.
35. Nikolas txiki.
36. Fernando amezketarra.
37. Burbuila mila kiloko arraina.
38. Ate atzeko sekretuak.
39. Benek Anna maite du.
43. Erinias taberna.
44. Aitaren bila.
53. Sasi arteko ezkutalekua.
54. Izar bat naiz.
55. Abereen etxaldea.
56. Maiatzean 15 urte.
57. Kanpai hotsen misterioa.
60. Agure jakagorria.
63. Mezua.
67. Hauts madarikatua.
73. Apaiz zaharraren gitarra.
75. Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?
76. Bi istorio.
77. Jette.
78. Pirata jokoa.
82. Nikolas txikiren komeriak.

10 URTETIK AURRERA

1. Tigretxo orroelaria eta gangsterrak.
4. Emilio eta detektibeak.
5. Lientzo txuria.
6. Nabukodonosor.
9. Gaizki ateratako argazkia.
10. Ametsen kontrabandista.
11. Errusika.
12. Lotte eta Luisa hau bizki pare!
13. Antzerkilandia.
17. Ezin da ipuinik asmatu ala?
21. Estitxuk pirata izan nahi du.
22. Ipuin naturalak.
23. Maripertxenta.
26. Ixu, hortzik gabeko marrazoa.
29. Nikolasaren abenturak eta kalenturak.
30. Ramuntxo detektibeak.
40. Jolas egiteko ipuinak.
41. Azeri beltza.
42. Gezi urdina.
46. Sorgin txikia.
48. Urtegi misteriotsua.
50. Metak eta kometak.
51. Eskubeltz taldearen abenturak.
58. Amona sagar gainean.
59. Kittano.
61. Lazkao txiki.
62. Maddi oporretan.
65. Bidaia ahaztezina.
66. Arkatz fantastikoa.
68. Telefonozko ipuinak.
70. Malkos.
74. Nire familia eta aingerua.
79. Gilbortzio eta Argaltzio.
80. Katixa, Kroko eta Kokoroko.
84. Arranopola!

8 URTETIK AURRERA

2. Suzko Zapatak eta Haizezko Sandaliak.
8. Katixa eta Kroko.
14. Tilin-talan.
19. Etxeorrazeta.
33. Pippi kaltzaluze.
34. Esaera zaharrak eta txiste berriak.
45. Tomas txorimalo.
47. Hitzak jostailu.
49. Txerrama errudun.
52. Igarkizunak.
64. Bazen behin, behin baten.
69. Miru eta Mara.
71. Ziprintin.
72. Pippi itsasorako asmotan.
81. Pippi hegoaldeko itsasoetan.
83. Atea kox-kox.



baloreak

.....

irakaskuntzan

Arlo teorikoa: Joxe AZURMENDI eta Felix PLACER

Arlo teoriko-praktikoa: Izadia kabinetea, Eskoriatzako Almen ikastola, Errenteriako Iztieta ikastetxea, Kanboko Xalbador kolegioa, Basauriko Kareaga Goikoa herri ikastetxea, Gasteizko Koldo Mitxelena institutua...

hik hasi
elkarrekin **topaketak**

Maiatzak 22-23
Miramar Jauregian
Donostia